

21. zenbakia
2001eko uztaila

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

URIBE

Unax Ugalde

“Orain dela hiru urteko Unax ez da aldatu,
lagun minek eta jende
askok badaki hori”

• irazu • nora joan oporretan • hondartzako beharginak •



Hondartzan

Arrigunaga, arrastiria. Itsasertzeko harearen freskotasuna, uraren goibehera, eguzkiaren epela...
Atseden orduak. Hondartzaina eguneko bere azken ibilalditxoak egiten eta lekaine bi ere aukera gozaten.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzaria E.B.E.
HELBIDEA: Ansoi 6, 4. solairua, 5. begia 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskaltel.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Maitane Barroso, Itziar Benedé, Javi Gonzalez del Herrero
ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Burron
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Goña Vázquez
KOLABORATZAILERAK: Bitor Egumola, Esti Eskerra, Jokin de Pedro, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Xabi Bilbao, Alberto Gonzalez, Unai Elorriaga, Algorikoa Bernaldi Etxe, Aklaine Kaminanga, Itziar de Cos, Kricina Sangonía, Inaite Kortolostegí
ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza
PUBLIZTATEA: Jon Gabiñondo (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osoik edo zati, makinaz zehar informatikar kopiatzea, baimen barik, erabot galarazirik dago
© BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteetako TOPAGUNEko partaidetza da

Aldizkari honek Bizarrak Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du
Ixasgane Etxea / Karitateak 1
TOPAGUNA

GETXOKO UDALA
Aldizkari honek Getxoko Udaltzaizaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala
Aldizkari honek Leioako Udaltzaizaren dirulaguntza jaso du
BERANGOKO Udaltzaia
Aldizkari honek Berangoko Udaltzaizaren dirulaguntza jaso du

Bizkaiko Foru Aldundia
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ALDIZKARIA
jaso nahi duenak
deitu baino (94 491 13 37) ez du egin behar.
Pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676



[flasha]
UDA ETA JAIAK. Edozein herritako jaietan hartutako irudia izan liteke goikoa, guztietan berdintsu jokatzen du-eta pertsonak. Izan ere, urte osoko tentsioak kartzeko aukera paregabea izaten dira jaiak. Goza itzazu! (Leioa, 2001eko San Juanak)

[UZTAILA]

Bizkai aldean garagarrik izenaz ere ezagutzen den hil honek uztarekin, emaitzarekin du zerikusia. Ikasle jendeak ere uztailean du ikasturteko lanaren emaitza: uda zorientzua, lasaia, ondo lan egin osteko atsedeneko emaitza pozgarria; edo, batzuetan, kalabaza uzta oparoa baina ez ondo etorria. "Uzta, ereintzaren saria".

Nekazariak ere uztailean du negu-udaberrietan egindako lanen emaitza garaia, berez-berez eta musutruk etorriko ez bazaio ere: "Uzta garaian lokartu, miserian iratzartu", "Uztailean, igitaia eskuan". Baina laborariak ere azken emaria begiesteko abagunea edukiko du: "Uztailean gariak ebaki, horrek zer poz duen nekazariak daki"

JOKIN DE PEDRO

UK gure aldizkariak ere irabaziak ditu oporrak, uzta aberatsa jaso baitu udaren atarira heldu orduko. Hori horrela, abuzturako zerbait proposatzera noa irakurleei: hile horretan, abuztuan, igarregunak edo zotalegunak dira, hau da, hurrengo urteko hile guztietarako eguraldia iragarriko duten egunak. Iragarbide bat baino gehiago badira ere, hona Bizkaian tradizioa duen bat: abuztuaren lehen 24 egunak aintzat harturik, lehenean eta hamahirugarrenean zelako eguraldia, halakoa izango da urtarrilean; bigarrenak eta hamalagarrenak otsaileko eguraldia islatuko dute; hirugarrenak eta hamabosgarrenak, martxokoa eta abar. Kontuak erroteko behar besteko ekimena duenak idatzi diezagula 2002ko

San Jorge eta Herensugea



Joxi Arakama
Getxoko udaleko euskara teknikaria


"Euskarari erabilpen esparru berriak zabaldu behar zaizkio"

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

Denboraren poderioz gauzak (ez guztiak baina batzuk bai) onerako aldatuz doaz. Adibidez, Getxoko udaltxean duela gutxi Espainiako armadara joatera behartuta egoten ziren gazteentzako bulegoa desagertu egin da, eta orain bulego hori, Euskara Zerbitzuaren egoitza da. Bertan Joxi Arakama (Tolosa 1963) lanean hasi da, bere hitzetan oraindik lurra hartzen. Euskal filologian lizentziatu ondoren luzaroan izan zen euskara irakasle Joxi, sei urtez Leioako Udaleko euskara teknikari moduan egin du lan eta orain Getxon sortu berri den Euskara Zerbitzua bultzatzea egokitu zaio.

Hasteko Joxi, zeintzuk dira Euskara Zerbitzuaren betekizunak? Era bitakoak dira, batzuk barrura begira, hau da Udal mailakoak eta besteak, kanpora begira, hau da, herri mailakoak. Barrura begira, udalean bertan erabilera plana mar txan jarri nahi da. Euskara udalean lan hizkuntza izatea eta zerbitzu hizkuntza izatea bermatu nahi dugu. Herriari begira, gizarte-ko sektoreetan normalizazio plana abiatu nahi dugu. Belaunaldiz belaunaldi euskararen transmisioa ziurtatu, euskararen ezagutza indartu euskaltegien zein ikastetxeen bitartez, euskararen erabilera zabaldu esparru desberdinetan...

Egiguzu, Getxon Euskarak bizi duen egoeraren erradiografia. Horra hor datu adierazgarri batzuk: bost getxoztarretatik bat euskalduna da; 2013. urtean gauzak berdin jarraituz gero, biztanlegoaren erdia euskalduna izango da (SEIren arabera). Baina badaude datu kezkarriak ere, adibidez bederatzitik getxoztarretatik batek baino ez du euskara ama hizkuntza, edo beste datu bat, hiru urteko hamar umetatik lau oraindik erdarazko ereduetan matrikulatzen dituzte gurasoek. Horregatik nik euskararen egoerari buruz ostarreak daudela esaten dut. Hortxe ditugu ikastolak, seme-alabei euskaraz berba egiten dieten guraso gazteak, 1.200 lagun herriko euskaltegietan ikasten... Zeru garbia. Baina hodeiak ere badaude. Gero eta euskaldun gehiago badago ere, erabilera oso baxua da,



horregatik da hain garrantzitsua euskara bizitzako arlo guztietara zabaltzea.

Zeintzuk dira premia larrienak? Garrantzitsuena oraintxe aipatu dizudana da: euskara eremu desberdinetan erabili ahal izateko aukerak eskaini herriko euskaldunei: kirolean, (adibidez Faduran egiten diren ikastaroetan), aisialdian, komunikabideetan, merkataritzan... Irakas-kuntzan euskararen eskaintza sendotu behar da, eredu euskaldunak bultzatuz, orduz kanpoko jarduerak euskaldunak. Bestalde, familia bidezko transmisioa bultzatu behar dugu eta horren garrantziaz gurasoak ohar-

tu... Baina orain arte bide bat egina dago... Bai, jakina, eta gainera Getxo aukera handiak dituen herria da, 15.000tik gora euskaldun daude, eta askoz gehiago dira ulertzeko gai direnak, euskaldun kopuru hori herri gutxiak dauka, ezta Azpeitia batek; badaude euskararen aldeko herri ekimenak, ikastolak, Euskara Elkartea, Bertsolari Eskola, UK aldizkaria bera ere... Esku artean ditugun aukera hauek guztiak ondo baliatu behar ditugu. Eta amaitu aurretik, zera esan nahi nuke, nahi duenak gugana jo dezakee-

*Euskara Zerbitzua T: 94 489 02 18

[UKronikak]

Sarrikobaso Oslo

Testua: Unai Elorriaga

Bildumak egiten ditut nik. Ez, ez dira bildumak. Nik sekula ez dut bildumarik egin. Gauzak biltzen ditut nik, baina ez dut bildumarik egiten. Bildumak izaki ansiosoak dira eta ni ez naiz pertsona ansioso, ni sugandilen modukoa naiz eta sugandilek sekula ez dute bildumarik egiten, oinak garbitzen ez dituzten bezala.


Kontua da gauzak biltzen ditudala, baina bildumarik egin gabe. Ez da egia, hala ere, "gauzak" biltzen ditudala, batek baino gehiagok pentsa dezakeelako gauza desberdinak biltzen ditudala, hau da, mota desberdinetako objektu, elementu edo enteak. Ez ba: gauza bakarra biltzen dut nik. Sudurrak biltzen ditut nik, erabat modu asistematiko eta eskandalosoan.

Sarrikobasotik hasten naiz igual edo Salsidutik, eta sudurrak ikusten ditut aldapatetik igotzen edo jaisten; izan ere Sarrikobason aldapa dago, horren itxuririk ez badauka ere, eta Salsidun zer esanik ez. Eta kale horiek berez ez zaizkit asko gustatzen baina hara joaten naiz sudurrak biltzen kaleen izenak gustatzen zaizkidalako. Argazki-kamera eramaten dut eta erretratuak egiten dizkiet sudurrei, eta sudur batzuk konturatu egiten dira argazkia egiten ari naizela edo, beste modu batera esanda, sudurren jabeak konturatzen dira argazkia egiten ari naizela, sudurrak nahiko despistatuak baitira berez eta inoiz ez dira ohartzen baten bat argazkia ateratzen ari zaiela. Konturatuko balira ere, postura egingo nuke indiferente egingo zutela aldapan gora edo aldapan behera. Ez sudurren jabeak bezala; sudurren jabeak amorratu egiten dira eta gauza inkoherenteak esaten dituzte, nire aurka eta nire arbasoen aurka, edo jo egiten naute, bihar-etzi hilkutxa batean sartu behar ez balira bezala.

Villamontetik ibiltzen naiz gero.

Estazioan umeen sudurrak erretratatzeko ditut edo, beste era batera esanda, oraindik kontzientziarik ez daukaten sudurrak.

Basagoitin gerra aurreko sudurren argazkiak egiten ditut.



“ Sudurrak nahiko despistatuak dira berez ”

Gero errebelatu egiten ditut erretratu guztiak eta etxera eramane. Etxean erreproduzitu egiten ditut sudurrak, igeltsuz. Ondoren, ez nolana hiko kariñoz, larru-kolorez pintatzen ditut igeltsuzko sudurrak eta gorri apur bat ipintzen diet eta gorri kolorea desegiten zaienean bota egiten ditut zakarrontzira, horrek esan nahi baitu umorea galdu dutela sudurrek, hau da, sudur insensatoak direla.

Eta hori guztia eginda uste nuen personaje arraroa nintzela ni baina lehengo egunean hamabi bat urteko mutil bat ikusi nuen metroan kaiola batekin eta kaiolan txirula bat zeukan eta txirulari hitz egiten zion. Eta txirulari ez ezik metroko mobiliario guztiari ere ari zitzaion hizketan. Aibon sartu zen gainera. m

[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / TRENA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez




ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketakk
r
i
m
e
aNegubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

Taberna
BerriSarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

jateko



urdaitegia • frutadenda • ellkagaiak

Amezti 4 - TF: 94 491 06 54
ALGORTA

[musika]

Aurten Getxoko Jazzaldiak bere 25. edizioa ezagutu du. Hau dela eta, Pablo Zuñiga jazzean adituari gogoeta labur bat eskatu diogu.

Getxoko Jazzaldiak 25 urte

Testua: Pablo Zuñiga

Honezkeroko mende laurdena, emozio ahaztezinak: gau magikoak, puntako izen-deiturak... Stephane Grapelli, Michael Brecker, Michel Petrucciani, Yellow Jackets... Urteotan eta jazzari lotuak Getxotik pasatu diren ospetsuen zerrenda itzela da. Itzela izan da, baita, amerikarrek zein europarrek urte luze eta aberasgarri hauetan erakutsi duten talentua jazzaldiak izan dituen kokagune desberdinetan: Portu Zaharra, Fadura, San Nikolas plaza edo Biotz Alai enparantza. Zalantza barik leku egokiak izan dira guztiak eta horietan, konpasez konpas, izakera propioa lortu duen jazzaldi honen biografia idatzi da. Hasieran herriko jaietako egitarauan beste ekitaldi bat baino ez zena, gaur egun nazioartean oihartzun handiena duen Getxoko ekitaldi kulturala da Jazzaldia.

Beste jaialdietatik bereizten duen hainbat ezaugarri ditu Getxoko Jazzaldiak: bere izakera europarra, kontinente zahar ho-

netako musikariak programatzen ditu eta atzerrian prestigio handia duen lehiaketa ere badago Jazzaldiaren egitarauan.

Jazzaldiko karteletako protagonista diren aurpegi ezagunak alde batera utziz, antolatzailerak jazzarekiko zaletasuna bestelako eskaintzen bidez zabaltzen eta pizten saiatu dira, eta bai lortu ere. Eskaintza guztiak egitarau aberatsa eta erakargarria osatzen dute urtero. Marching band-en kalejira, kutsakorra; une errepikaezinek osatzen duten argazkien erakusketa; herriko musika ikasleek euren ezagutza handitzeko ikastaroak; edo eta jam sessiom-etan egoten den giro aparta. Emaizta bikainerako osagai tentagarriak izaten dira hauek.

Bizi eta goza ezazu jazz goizez, arratsaldez eta gauzez jazzaldiak irauten duen bost egunetan, 25 urte barru berriro ere gogorako dituzu eta. Eta hau hasi baino ez da egin... m

Branford Marsalis aurten Jazzaldian egon da



Getxoko Kultur Etxea


Irakurleak berbetan Jaso ditugun gutunak

Zuzendariari iradokizunak

Aldez aurretik ez zaitut mindu nahi, bai ordea uler dezazula aurreko alean argitaratu zenutenaren moral falta. Aldizkariaren orrietako batean erdi biluzik dagoen emakumezko bat azaltzen da gazte batzuen aurrean... Nik entzuna diot kultura eta nortasun handiko jaun bati, gazte bat zikintzen duenak zaharra ere zikintzen duela, kaka zapaltzeak biak zikintzen dituen modu berean, eta hau moralaren arloa trasladatzen dut. Konturatu ez bazarete irakurleak eskandalizatzen modua da, gehienak gazteak dira eta. Nik zuengana jotzen dut erreferentzia erlijiosorik izan gabe, igual du, argi dago-eta heziketa erlijioso faltagatik egin duzuela egin duzuen. Kontua da, irakurleak eskandalizatu dituzuela eta eskandalua bekatu larria da. Liburu batean irakurria dut eskandalua egiten duenak hobe lukeela jaio ez izana eta bere burua itsas hondora errotarri bati lotua botatzea. Orain ulertzen dut argitaratu duzuen heziketa faltagatik izan dela.

Abade bati gertatu zaizuna azaltzeko iradokitzen dizut, eurak dira-eta adituenak kontu hauetan. Beste barik, agur bero bat. l

Jesus Sampelayo



Euskal komunikazio esparrua babestu eta indartu

Ez ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiarekin dihardugun komunikabideek. Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltza itxita, Jon Abril kazetaria auzipetua, Euskal Irratia lizentzia legalik gabe, eta orain Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kontrako eraso judizialaren berri izan dugu. ETArri egindako elkarriketaren aitzakian, Euskal Herrian bertotik informazioa lantzen ditugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Murtxe Aizpurua eta hauek zuzentzen dituzten komunikabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalen jarritako kereilak informazioa emateko eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Bizi dugun gatazkan ETArriaren ikuspegiarekin ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herria zein erbestearen berria zabaltzen duten ehunka komunikabidek. Horrela erakutsi dute haren karian hainbat erreakzio izan dituzten instituzioek eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarriketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen, irakurleak jakingo du esandakotik bere iritziak eta ondorioak ateratzen. Informazio egiazko eta objektiboa eskaintzea ez da delitua, irakurleak eta komunikabideek legez aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta honen inguruan argitaratu diren hainbat iritzi, Egunkaria eta orohar euskal esparruko komunikazioa jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunikabide batzuekin edota euskalgintzan diharduten hainbat erakundekin egin den modu berean. Horregatik, guztion artean euskal komunikazio esparrua babesteko eta indartzeko premia dugu.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra daraman ekinbide edo Iruñeko Udalak Egunkariatik publizitate guztia erretiratzea ez dira kasu isolatuak, aldez aurretik finkatutako jokabidea baizik. Komunikabide honi, irudi jakin batekin lotu izanagatik, bere ospean eta publizitate merkatuan kalte eragitea ez da zilegi. Gure hizkuntzak bizi duen egoeran Egunkaria zein euskalgintzan diharduten beste erakunde batzuk amiltze bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzerazinak eragin diezaizkioke. Gaur Egunkaria eta Gararen txanda izan da, bihar beste batzuk, euskalgintza zein herri komunikazioaren dabilen beste edozein izan daiteke. Garaiz gaude elkarlana bultzatzeko eta euskal komunikazio esparrua artikulatzeko presarik gabe baina loak hartu barik. Euskal komunikabideak ezinbestekoak ditugu, irakurri, entzun eta ikus itzazu. l

Egunkaria-ko langileak

Getxoko auzokideei

Getxoko Adierazpen Askatasunaren aldeko plataforma gara eta zuengana jotzen dugu guztioi dagokigun arazo baten berri emateko: Udalak indarrean jarritako ordenantza baten ondorioz elkarrekin ez daukagu inolako informaziorik, deialdirik edo propagandarik ateratzeko aukerarik.

Plataforma honen helburuekin bat egin dute, besteak beste, Getxoko elkarte eta kolektibo hauek: Agurra Dantza Taldea, Algortako Bertsolari Eskola, Algortako Gazte Asanblada, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Autodeterminazio Biltzarrak, Basozaleak, Berantzagari Dantza Taldea, Bizarra Lepoan Getxoko Euskara Elkartea, Euskal Herriaren Euskaraz, Euskalkiz Euskalki Euskara Taldea, Gazte Bilgunea, Getxo Antimilitarista, Getxo Futbol Taldea, Getxoko AEKko irakasleak, Getxoko LAB, Getxoko Sokatira Taldea, Getxo Rugby, Getxo Surf, Herria 2000 Eliza, Ikasle Abertzaleak, Polborin Kolektiboa, Punta Galea Txirrindulari elkarte, Sendoa, Senideak.

Udalak berrindartutako ordenantza dela eta mural, pintada edo kartelak ezin dugu inon jarri eta horren ondorioz kartelak ipini ahala

kentzen dizkigute eta askotan isunak ere jarri dizkigute. Alkatearekin gai honi buruz hitz egin genuen eta konponbiderik ez ematez gain erabaki hori garbitasunaren mesedetan hartu zutela esan zigun; baina herritar askori ez zaigu "garbitasun" hori gustatzen eta elkarte zein pertsona guztioi gure ideiak libreki adierazteko dugun eskubideari ez diogu uko egin nahi; beraz, gure adierazpen askatasunaren eskubidea bermatuko duen irtenbide baten bila jarraituko dugu. Asmo honekin bi dira epe motzean jorratuko ditugun bideak. Alde batetik, eta bide legala jarraituz, aipatutako ordenantza kentzeko mozioa aurkeztuko dugu udalarekin, horrelakorik ezean bestelako konponbideren bat ere bilatuz. Beste alde batetik, eta mozioaren bidez ezer konpondu ezean, desobediencia zibilaren bidez ekingo genioke guztion adierazpen askatasuna babesteari, eta pintzela eskuan Adierazpen Askatasunaren aldeko herri-mural bat margotuko genuke San Inazio jaietan. l

Getxoko Adierazpen Askatasunaren aldeko plataforma

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

LAINOA

Urgull 3, ALGORTA

foto xabier

argazkiak



Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[merkataritza]

Azoka zabaltze jaia

Ekainaren 16an ofizialki zabaldu zuten Algortako azoka



Mikel Martinez

Jende ugari inguratu zen Algortako Azoka zaharberriaren inaugurazio jaialdiara. Izan ere, eta gauza jakina da, doaneko luntxa eta opariak tartean daudenean publikoak ez du sekulan hutsik egiten. Jaialdiak goiz osoa iraun zuen, han ziren Algortako Eskauteko ankapaluak azoka inguruko kaleak girotzen eta azokako marka zuten erosketa poltsak oparitzen. Biotz Alai abesbatzako lagunek ez zuten hutsik egin, eta eurengandik hurbil zebiltzan Areatxu fanfarrikoak azokako

bazter guztiak musikaz betetzen. Jakina, horrelakoetan agintariak beti azaltzen dira, han ziren Eusko Jaurlaritzako Belen Greaves, Getxoko Udal ordezkariak, Foru Aldundiko Ricardo Ansotegi, Getxoko Merkatarien Elkarteko arduradun berria den Eduardo Andrade, eta beste hainbat.

Merkatariek egin duten ahaleginaren ondoren, azoka abian da, orain herritarrek ahalegin horri zelan erantzuten dioten ikus-eta baino ez da falta. m



Mikel Martinez



[jendea]



Mikel Martinez

Tomás Olabarrieta museoa etxean

Euskal Herriko antzineko tresnen bilduma ikusgarria osatu du

“Gazte-gazterik hasi nintzen ni horrelango jeneruk batzen, guztik bertokok” bere euskara ederrean hasi zitzaigun Tomás berbetan. Igeltseroa da eta baserri asko konpontzen ibili da, leku horietan lorutako piezekin hasi zen bere bilduma osatzen. Berrogei urte baino gehiago eginak ditu antzinako lan tresna hauek batzen, batez ere Bizkaian eta Araban. Eta egindako lana ikusgarria da, berak ere ez daki zenbat pieza dituen “bostehun baino giau bai, ehun aizkora dekoaz, danak diferentek”, baina ez hori bakarrik: laiak, erlauntzak,

buztarriak, laratzak, eskilatzeko artaziak, artoa zein garia ehotzeko tramankuluak, mantekaua egitekoak, itsumutilak... Zerrenda amaitzina da eta antzinako bizimodua ezagutzeko oso argigarria. Bere bildumaren parte bat erakutsi zigun, baina ez guztia, izan ere, guk jakin badakigu askoz ere altxor gehiago daukala batuta eta gordeta. m

Harremanetarako: Tomás Olabarrieta.
Martiatu 4, Goierri, Erandio

zure markarik onenak sport wear-ean

Serigrafia eta transfer

Super prezioak!!! KOADRILAK-JAIAK!!!

Kamisetak, Sudaderak, Poloak, Prakak, Euritakoak....

Koadrilak: kamisetak bertan eginez gero, **Bi Pertsonentzako Asteburuko Bidaia** zozketatuko dugu, eta koadrilako gainontzeko kideentzat, **ATOR-MARRASKILO kamiseta bana**

ATOR

- Fotokopiak zuribeltzean
- Enkoaderazioak, faszikulak
- Anplazio zein erredukzioak
- Plastifikazioak
- Inprentak, txartelak
- Papeleria
- Gomazko zigiluak

ALGORTA
Algortako etorb. 106
Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62

BILBO (lantegia eta biltegia)
Moncada 9, 3.
Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46
e-mail: atorfym@euskalnet.net

LEIOA
Sabino Arana etorb. 86
Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46

ORIXA
liburudenda

Bestelako gaiak
Drogak
Politika
Bidaiak
Osasuna
Sexualitatea
Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

basurto
algorta S.L.
altzariak

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

CALENDOS
RIKI
UMEAK -GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA


VILLABOTAS
IATETXEA

Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

Nobela SPrako Tranbia

Unai Elorriagak bere nobela aurkeztu zuen Algortan



Joseba Butron, Unai Elorriaga eta Iñaki Ondarroa, anfitrioiak


Lantzean behin liburu bat irakurtzeak ez dio inori kalterik egiten, are gutxiago Unai Elorriagaren SPrako Tranbia nobela bada. Dagoeneko libururik salduenen artean dago SPrako Tranbia eta -harrigarria- oso ona da. Bada, Unai, Algortakoa izanik Kurkudi liburu-dendan, euskarazko obren eskaintza duina duen bakarrenetakoan aurkeztu zuen SP. Lehenengo Joseba Butron irakaslea mintzatu zen eta liburu goraipatu ez ezik, kaleratu berria bada ere, birritan irakurria zuela ere aitortu zien hara bildutako lagunei. Unai, labur-labur, bere liburuaz berba egin baino, nahiago izan zuen irakurria zutenek berari esandakoa kontatzea. Esaterako, Harkaitz Canok SPk

mundua hankaz gora jartzen zuela esan zion, eta bere koadrilakoek, "ez dago txarto", eta lagunek hori iritzi bazioten pozik egoteko modukoa zela esan zuen Unai. Ondoren, eta liburu-dendan sargoria zela aitzakia hartuta, luntxa kalean egitea erabaki zuen Matxalen Amasek, Iñaki Ondarroaren Kurkudi liburu-dendako anfitrioiaren emazteak. Pintxoak, kategorioak, Matxalenek berak eta bere aitak prestatu zituzten literaturzaleen gozamenarako. Mahairen inguruan aurpegi eza-gun asko: Laura Mintegi idazlea, Iñaki Zarragoa alkatea, Christian Reinicke zinegotzia, irakasle asko (Jokin de Pedro, Gotzone Agirre, Jon Aurtentxe, Konrado Mugerza, Leire Imaz, Iker Loes...),

Literaturzale ugari elkartu ziren aurkezpenean



José Ignacio Lobo Altuna, autoerreturua




Liburuko argazki bat: Algorta 1989

Lobo Altuna fotografia liburua

PHotoBolsillo bilduma ospetsuak bere argazkiak argitaratu ditu

La Fábricak hilabetero kaleratzen duen Espainiako fotografo handien bilduman, Jose Ignacio Lobo, aldizkari honetako kolaboratzaile ohiaren argazkiak plazaratu berri ditu azken zenbakian. Bilduma horrek argazkilaririk esanguratsuenen monografiak formatu eskuragarri eta didaktikoan argitaratzen ditu hilabetero. Bilduma horren garrantziaz ohartzeko bertan argazkiak erakutsi dituzten egileen zerren-

da ikustea baino ez dago, besteak beste, Cristina Garcia Rodero, Alberto Garcia-Alix, Joan Fontcuberta, Javier Vallhonrat... Loboren argazkietan ohizkoak dira, zoroetxeak, karnabalak, herri kirolak, mirarigileak... Liburuaren aitzin solasa osatu duen Miguel Sánchez-Ostiz idazlearen arabera "badiren baina besteek begiratzen ez duten lekutara begiratzen du Lobok". m / La Fábrica: 913 60 13 20



BILBOMICRO

"1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen"

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI LIBURUDENDA

Testu liburuak enkarguz

Euskarazko irakurgai guztiak!!
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BISITATU GURE
DENDA BERRIA!

MOROTXO

Kantxa
Kizol moda



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

UK

Aldizkaria
jaso nahi
baduzu
deitu:

94 491 13 37

Pozik onartzen
ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676

[euskara]

Ibilaldia 2002 Getxon

“Lotu barik” izango da hurrengoaren leloa

Leloa eta logotipoaren aurkezpenak ekainaren 8an egin zituzten San Nikolas ikastolako arduradunek Getxon izan zen lehengo prentsaurrekoan. Horretan, Bizkaiko ikastolen jaia antolatzeko saritu duten proiektua aurkeztu (San Nikolas ikastolak egin duen hirugarren eskaera izan da aurtengoa) eta datorren Ibilaldiko logotipoa erakutsi zioten Iñaki Zarrago alkateari kazetariaren aurrean..., eta Ibilaldiko lehengo kamiseta oparitu alajaina! Hori izan zen ekitaldiko gertaerarik dibertigarriena..., kamiseta txiki samarra baitzen alkatearentzat.

Gotzon Muneta arduradunak kontatu zuenez, antolatzaileek erabaki zuten lehengo eta behin udal ordezkariak eta Ge-

txoko herritarrek ezagutu behar zituztela proiektua, leloa eta logotipoa. Baina, noski, laster izango da beste prentsaurreko handi bat, eta horretan Euskal Herri osoarentzat emango dute ezagutzera. Momentuz guk, UKtik, prestakuntza martxan dagoela aurreratu diezazuekegu. Batzorde ezberdinak (kirolarena, kulturarena, materialaren salerosketaz arduratuko dena edo prentsa-erikiko harremanak bideratuko dituen, besteak beste) osatuta daude, baina oraindik lekurik badago lagundu nahi dutenentzat. Haientzat edo gehiago jakin nahi dutenentzat 94 430 54 78 telefonoa eta snikolas@ikastola.net posta elektronikoa helbidea aukeran daude. UKn ere hilabetero informaturik izango zaituztegu. m

Ikastolako ikasleak danborrada egin zuten aurkezpenaren egunean



Mikel Martinez



ANA SAN ANDRES ARRUABARRENA
25 urte ikastolan lanean

San Nikolas Ikastolak urte bukaeran egiten ohi duen jaian –ekainak 9an– omenaldia eskaini zion Ana San Andresi, izan ere, Anak 25 urte bete ditu ikastolako idazkaritzan lanean. Inork laguntza behar duenean, sekulan ezetz esaten ez dakien horietakoa da Ana.

A zer-nolako pazientzia eta lan egiteko gaitasuna erakutsi diguzun! Ondo baino hobeto merezi ditu Anak ikastolak oparitu zizkion oroigarriak. Eskerrik asko, Ana! m

[kirola]

Pala Robert Simpson memoriala

Ohitura handiko txapelketa honen XIII edizioa ospatu berri da



Mikel Martinez

Sari banaketaren ondorengo argazkia, txapelarekin aurtengo irabazleak: Jabi eta Iñigo

“Alkarregaz” koadrila Algortako San Nikolas plazan inguruan duela urte asko ibili izan diren lagunak osatzen dute. Eurretariko bat Robert Simpson zen. Robert ezbehar batean hil zen eta haren omenez bere lagunek jadanik tradizio handi duen pala txapelketari bere izena jarri zioten; izan ere, Robert izan zen txapelketaren bultzatzailea eta antolaketa lanetan gehien arduratzen zena. Bada, aurtur XIII. edizioa izan da San Nikolas elizpeko frontoian. Guztira ia

berrogei bikotek eman zuten izena eta azkenean Jabik eta Iñigok eskuratu zuten txapel estimatua, baina ez polemika barik. Kontua da irabazleak batek, ohizko egurrezko pala erabili barik, padelekoa erabili zuela eta horrek betidanik lehiaketan parte hartu duten kirolarien artean susmo bat baino gehiago eragin zuen. Azken batean San Nikolaseko frontoian tantua lortzeko ia guztiak balio badu ere ohitura egurrezko pala eta tenis pilotarekin jokatzera da. m



THE SECRET GARDEN



Kiromasajista: Ana M. Blanco Imatz / Esteticien: Susana Gragera

SOLARIUM

36 HODI EKOLOGIKO + AURPEGIRAKO 3 HIGIENE OSOA

MASAJEAK

TRATAMENDUAK

TERAPEUTIKOA-LASAIGARRIAK / ANTIZELULITUKOA-ERREAFIRMANTEA
ERREFLEXOLOGIA / DRENAJE LINFATIKOA

Natura Bissé

DIAMOND azalerako bitxia

- DEPILAZIO ZERA. Gorputz tenperatura
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA. Elektrologo diplomatua
- DEPILAZIO LASER
- AURPEGIRAKO TRATAMENDUA
- KUTISAREN GARBIKETAK
- MIKROPIGMENTAZIOA ETA TATUAIA

- BEKAINENTZAKO TINTE ETA PERMANENTEA
- MAKILAJEA (ETXEAN) **eskatu ordua!**
- KOLOREZKO KOSMETIKA **120 m²-zuzen zerbizura!**
- GIMNASIA PASIBOA
- KONPLEMENTOIA

eta orain... *fisioterapeuta diplomatua...*
traumatologia, kirol fisioterapia, errematologikoa...

abuztuan zabalik!

Algortako etorbidea 106 • 94 460 62 01 • 48990 ALGORTA



Lantaldea: Iñaki Zugadi, Xabier Buenetxea eta Mónica Ariño

Natura SOS Galapago proiektua

Bertoko dortoken onerako, kanpoko dortokak harrapatzen ari dira Getxon

Habitat natural bakoitzak berezko oreka izaten du, bere espeziek, bere arauak... Inguru horretan espezie arrotzak sartuz gero –aloktonoak deitzen dira–, oreka apurtzen da eta bertan bizi diren jatorrizko espezieak –autoktonoak– desagertu egin daitezke. Horixe bera gertatzen ari zen Bolueko paduran edo hezegunean. Getxon bizi diren animalia espezieen inbentarioa egin zenean, bertako paduretan (Boluen, batez ere), Euskadiko espezie mehatxatuen katalogoan agertzen diren dortoka mota bi bizi zirela ohartu ziren egileak: galapago legenarduna eta galapago europarra motako dortokak. Baina hauekin batera beste dortoka mota bat bizi zela ikusi zuten: Florida galapagoa (*Trachemys scripta elegans*). Dortoka hauek aspaldi umei oparitzen zitzaizkien dortokak dira. Ez dira hemengoak eta gaur egun debekatuta badago ere, lehen atzeritrik inportatzen ziren dendetan saltzeko, oso merke gainera, 500 pta.gatik eros zitezkeen. Dortoka hauek 35 urte bizi daitezke. Umeak arin nekatzen dira ani-

maliokin eta gurasoek ere dortokak etxetik atera nahi izaten dituzte. Jeneralean jabeek, ez hiltzeagatik edo, natur guneetan abandonatzen dituzte animalioek eta Bolue hirigune handi batetik hurbil dagoen lekua izanik, oso leku aproposa izan da askorentzat animaliak bertan uzteko. Kontua da, dortoka hau, florida, bertokoak direnak baino handiagoa eta askoz erasokorragoa dela, gainera gizakiekin egotera ohituta dago. Bada, espezie honetako dortoka indartsuagoa denez, bertokoak lekuri txarretara baztertzen ditu eta espeziea bera desagertzeko arriskua ere badago. Gainera, gaixotasunak ekar ditzake, esaterako, salmonela. Egoera hau zuzentzeko, Getxoko Udaleko Ingurugiro sailaren laguntzaz lanean ari dira, Xabier Buenetxea, Iñaki Zugadi eta Mónica Ariño. Proiektua SOS Galapago deitzen da eta helburua bertokoak ez diren florida dortokak harrapatu eta Boluetik ateratzea da. Horretan dabilta egitasmo honen bultzatzaileak. Egin zen Getxoko espezieen inbentarioan



Bolue bisitatzera doazentzako adituen aholkuak

- Ez jatekorik eman bertan bizi diren animaliei: horrek bertakoak ez diren espezie oportunisten (arratoiak, kaioak...) agerpena dakar eta inguruaren oreka naturala apurtzen da.
- Seinalaturiko bideetatik baino ez ibili, hau da, ez sartu hezegunean.

Ezkerrean, florida motako dortoka.

Ezkerrean azpian, Boluen harrapatutako ale batzuk.

Azpian, Iñaki dortokak harrapatzeko erabiltzen duten nasa bat eskuan.



Boluen florida espezieko 200 dortoka bizi daitezkeela kalkulatu zen eta horiek guztiak harrapatzen ari dira gure lagunak. Horretarako harrapagailu mota bi erabiltzen dituzte: barruan jakia daukaten nasa flotanteak (goiko argazkian) eta dortokak eguzkitan jartzen direnareko sareak. Harrapatzen diren animalia hauek guztiak errekupeazio gune batera bidaliko dituzte laster. Baina tranpetan bertoko dortoka espezieko aleak ere sartzen dira. Hauei fitxa osoa egin ondoren (neurriak, pisua, adina, biometria...), mikrotxip txikia jartzen diete lepoan, horrela animalion jarraipena egin ahal izateko. Ondoren, hartutako leku berean askatzen dituzte.

Urtebetean helburua betetzea espero dute. Baina ez da horregatik Bolueko arazoa bere osotasunean konponduko, dortokekin gertatzen den moduan beste animalia batzuekin gauza bera gertatzen delako: arratoiak, karramarroak, ahateak... Beraz, badago zer egin ugari. m Testua: J. A. / Argazkiak: Mikel Martínez



Gorpuzi eguna

Mendebaldeko kristau elizan, eukaristiaren -ogia eta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol bihurtzen direneko sakramentua-erakuntza gogoratzeko eta ospatzeko jai da Gorpuzi eguna. Gurean Algortako Portu Zaharrean urtero ospatzeko ohitura handia dago eta aurten eguraldiak lagundu ez bazuen ere, horrela egin zuten. San Nikolas elizako abadeek meza esan ostean Biotz Alaikoek abestu zuten eta, ondoren, sardina jana, arratsaldean erromeria.

Argazkiak: Mikel Martinez



[pasadizoak]

Martín Mugika

“Kalimotxo berba Algortako Portu Zaharreko jaietan asmatu zen”

Nork ez du ezagutzen kalimotxo Euskal Herriko edaririk ospetsuenetarikoa? Baina, nondik dator izena? Nork eta noiz asmatu zuen? Erantzunak Martín Mugikak zituela jakin du UK-k eta berehala jo dugu berarengana historia harrigarri hau ezagutzeko gogo biziz.

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkia: Mikel Martínez

Martín Mugikak bere langela, Bilboko Gran Vian, itxaroten gintuen paperez inguraturik. Lana alde batera utzi eta berehala elkartu zen gurekin pasadizo historiko hau kontatzeko. Martín ekonomia gizona da, 47 urte ditu eta Algortan bertan kalimotxo berbaren asmaketaren lekukoa izan zen, orain 29 urte.

Egia al da zuek kalimotxo asmatu zenuela?

Ez; kalimotxo bera aspalditik dator. Inork ez daki segurtasunez nork eta noiz asmatu zuen. Lehen Rioja libre deitzen zioten eta nahiko ezaguna zen Euskal Herrian. Guk, “Antzarrak” koadrilakook, egin genuena bataiatzea izan zen.

Noiz izan zen hori?

1972ko abuztuaren 12an arratsaldeko bos-tetan; Algortako Portu Zaharreko jaiak ziren eta 2.000 litro ardo erosi genituen, “Antzarrak” taldekook geuk jarritako tabernan saltzeko asmoz. Txikiteroak berehala hurbildu ziren gugana ardo eske. Ardoa eskatzen zuten bai, baina ordaindu ondoren ia probatu barik alde egiten zuten. Gerotxoago batek arrazoa azaldu zigun; ardoa galduta zegoen eta ez zegoen edaterik. Beraz, han geunden gu, Portu Zaharreko jaietan saldu ezin ziren 2.000 litro ardorekin eta, jakina, guztiz arduratuta. Halako batean gutariko batek proposamen bat bota zuen: “Saiatu gintezke ardoa beste edari batzuekin nahasten zapore txarra kentzeko”.

Eta kalimotxo egitea erabaki zenuten...

Proba ugari egin ondoren, ardoari zapore mingotsa ondoen Coka-Colak kentzen ziola ohartu ginen eta orduan nahastea erabaki genuen. Orduan txikitero batek edaria eza-

gutzen zuela azaldu zigun; Rioja libre zeukan izena eta nahiko arrakastatsua zen Euskal Herriko toki batzuetan. Hala eta guztiz ere, izen horrekin 4.000 litroak saltzea zaila izango zela pentsatu genuen eta izena aldatzea erabaki genuen. Hori arazo handia zen, noski, baina ez larriena. Horrez gainera, 2.000 litro Coca-Cola lortu behar genituen nahasketa egin ahal izateko, ontzi erraldoi bat nahasteko eta chunka botila edabea sartzeko. Eta hau guztia gutxi balitz, zapatua zen gainera.

Eta zer egin zenuten?

Gutariko bik Coca-Cola enpresako artezkari bat ezagutzen genuen eta berarengana jo genuen zuzenean mesedea eskatzeko; beste batzuk bainu-ontzi baten bila joan ziren edariak barruan botatzeko eta beste guztiak edaberako izen deigarri bat pentsatzen geratu ziren.

Nork asmatu zuen zehazki kalimotxo izena azkenean?

Egia esan, ez dakit; guztion artean izan zen. Orduak eta orduak eman genituen lelokeriak esaten eta horietako batean Erandioko lagun bat agertu zen handik. Kalimero zeukan ezizena eta, asper eginda geundenez, mutilaren izenarekin hitz jokoak egiten hasi

ginen. Batek nahiko motxa zela esan zuen eta hitzekin jolasten hasi eta kalimotxo berba jaio zen. Deigarria eta barregarria iruditu zitzaigun eta azkenean horrela bataiatu genuen edaria; kalimotxo.

Eta ondo saldu zen kalimotxo?

Ondo baino hobeto. Hasieran inork ez zuen uste 4.000 litroak salduko zirenik, baina edabeak arrakasta itzela izan zuen. Asteburu hartan litro guztiak saldu genituen eta astelehenean gehiago enkargatu behar izan genituen. Hori bai! Ekarri ziguten ardo berria ez zegoen galduta.

Baina teoria batek, kalimotxo hitza nafar batzuek asmatu zutela dio...

Teoria asko daude; zuk aipatutakoa adibidez eta 1980ko Bilboko jaietan asmatu zutela ere entzun dut nik; baina 1972ko Portu Zaharreko jaietan guk geuk asmatu genuela ziur esan dezaket.

Izena erregistratu al zenuten?

Tamalez, ez. Urte batzuk geroago Coca-Cola enpresak erregistratu zuen eta izen horrekin saltzen dute edaria herrialde askotan; Mexikon, adibidez. Izena, legez, Coca-Colarena da baina guk, han egon ginenok, festa haiek antolatu genituenok, badakigu egia osoa. m

“Teoria asko daude; nafar batzuek asmatu zutela..., 1980ko Bilboko jaietan asmatu zutela ere entzun dut nik; baina 1972ko Portu Zaharreko jaietan guk geuk asmatu genuela ziur esan dezaket”





Jose Mari Martinez Bubu

Irudi eta soinu ikasketak amaitu eta lanari ekin zion Jose Mari Mari Martinezek ("Bubu" laguntzat, Getxo 1971). Kirol argazkilaritzan sartuta ibili izan da, El mundo deportivo kirol egunkarian urte eta erdi eman zuen lanean, gaur egun, Deia egunkarian kolaborazioak egiten ditu eta baita Jolaseta aldizkarirako ere, eta fotografia komertziala ere lantzen du. m

Oporretan, nora?



Ana Ortiz *Barceló* bidaiak
Karibea modan

Agentzia gehienetan gertatu zitzaigun bezala, Barcelók daukan areto txikia jendez gainezka zegoen gu sartu ginenean. Baina apur bat itxaron ondoren Ana Ortiz langilea gure galderei erantzuteko hurbildu zen. Berangoztar gazte hau irribarretsu egoteko gai zen lanez gainezka ibili arren. Eskertzekoa eta aipatzekoa benetan. **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Kostaldera eta irleertara eta beste maila batean, Karibera. **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** 70.000 pta. inguru; hori izan daiteke gutxi gorabehera udan gastatzen dena, batez beste. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen dutenak?** Abuztuan familiak eta lehenago, ekainean eta uztailean eta geroago, irailean, koadrilak eta ezkonberriak. **Bidaietan modarik ba al dago?** Zalantzarik gabe. Orain, adibidez, Karibe da modan dagoena. **Zuen eskaintzarik onena?** Senegal, Zanzibar... Eskaintza berriak dira eta oso harrera ona izaten ari dira. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Bidaia ondo prestatzeko, ondo aukeratzeko eta, noski, ondo pasatzeko. ^m



Naiara Arondo *Halcón* bidaiak
Estatuan *Terra Mítica* eta atzerrian Senegal

Halcón Bidaiak-en Naiara Arondo getxoztar irribarretsua “bahitu” genuen ohizko galderei erantzuteko. Eta ondo aukeratu genuen, alajaina! **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Balear Irlak, Kanariar Irlak, ahal dutenek Karibe. **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** Penintsulatik mugitzen direnei bidaia 50.000 pta. inguru ateratzen zaie. Urrunago joan nahi dutenek 100.000 baino gehiago gastatu behar dute. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen dutenak?** Bereziki familiak, ezkonberriak, koadrila gazteak..., denetarik agureak izan ezik; horiek neguan bidaiatzen dira askoz merkeago ateratzen zaielako. **Bidaietan modarik ba al dago?** Orain leku bi daude modan: Terra Mítica estatuan, eta atzerrian Senegal. **Zuen eskaintzarik onena?** Guztiak dira onak. Printzipioz bidaiarik merkeenak dauzkagula esaten dugu eta, seguru asko, egia izango da. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Arazorik balego bueltan esateko, baina han dauden bitartean ez dezatela ondo pasatzeko aukera galdu. ^m



Beatriz Arranz *Eroski* bidaiak
Kruzeroak Mediterraneoan zehar

Bidaia bat baino gehiago (a ze ironia!) eta saiakera batzuk egin behar izan genituen agentziako lanez gainezka zegoen langile bati hitz batzuk “lapurtzeko”. Azkenean, Beatriz Arranz gazteak erantzun zien gure galderei. **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Kanariar Irlak, Karibe, Europa... **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** Hori galdera! Ez dakit, zaila da erantzuten, 100.000 pta. inguru. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen dutenak?** Denetarik. Ezkonberriak asko, adibidez. **Bidaietan modarik ba al dago?** Bai, jakina. Orain jende guztia, ahal dutenek, behintzat, Senegalera eta Zanzibarrera joaten dira. **Zuen eskaintzarik onena?** Mediterraneoetik antolatzen ditugun kruzeroak oso harrera ona dute. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Beno, aholkuak doazen lekuaren arabera eman behar dira. Afrikara edo Karibera joango direnei janaria eta edariekin kontu handia edukitzeko esango nieke. Eta kotoizko arropak eramateko. ^m

Nora joan gaitezke oporretan? Zenbat gastatu beharko genuke astialdi eder bat pasatzeko eta oporrak ahaztezinak izan daitezke? Nora bidaiatzeko joera izango du jendeak uda beroan? Eta zer aholkatuko digute bidai agentzietako langileek? Galdera hauei erantzuna emateko gure eskualdean dauden bidai agentzia garrantzitsuetara eta ezagunenetara jo dugu eta hau da kontatu digutena.

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez

Ainhoa Prieto *Iberia* bidaiak
Zergatik ez Sizilia?

Topera zegoen Algortako Iberia Bidaiak eta ezin gu atzintzeko inor topatu, horregatik Areetara abiatu ginen Ainhoa Prietorekin hitz egiteko. Berak eskatu genizkion hamar minutuak atera zituen hamaika gauza kontatzeko. **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Irletara, Europara eta orain bereziki Karibera. **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** Orain udan askoz gehiago, bidaiak garestiagoak dira eta. Batez bestekoa, 150.000 edo 200.000 mila pta. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen dutenak?** Uztailean eta abuztuan gazteak eta familia osoak. **Bidaietan modarik ba al dago?** Duda barik; aurten adibidez Sizilia, Kenia eta Guatemala dira modan dauden lekuak, gure agentzian, behintzat. **Zuen eskaintzarik onena?** Sizilia eta Maltarako bidaiak. Eskaintza berriak dira, orain arte ez zeudenak eta berria deigarria izaten da beti. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Argi eduki dezatela, alde batetik zeintzuk diren euren eskubideak eta bestetik, betebeharrak. ^m



Irantzu Dudagoitia *Ecuador* bidaiak
Lau urte barru espaziorako kruzeroa

Hainbeste bezero zeuden gu agertu ginenean oraindik ez dakigu mesede (atseden labur bat hartu zuen gugaz egoteko) edo gaiztakeria bat egin genion Irantzuri han azaldu ginenean. Hori bai, abegikor erantzun zien gure galderei. **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Mediterraneo, irlak eta Europa oro har. **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** Udan 100.000 pezeta inguru bidaiak garestiagoak baitira. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen direnak?** Jende gaztea eta seme-alaba txikiak dauzkaten bikoteak. **Bidaietan modarik ba al dago?** Ez dut uste. Nire iritziz bezeroek argi daukate nora joan nahi duten; ez dago eragipenik. **Zuen eskaintzarik onena?** Kruzeroa Karibetik zehar munduko kruzero-ontzirik handienean. Eta lau urte barru bat espaziorako beste bat aterako dugu; hori bai, pentsatu dazakezue, ez da bate-re merke izango. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Atsedena hartzeko eta eguneroko arazoak ahazteko, ondo pasatzeko modu bakarra baita hori. ^m



Mohamed Ezzedine *Byblos Tours*
Munduari itzulia hilabete batean

Byblosen Mohamed Ezzedine, agentziako nagusi libaniarrak, erantzun zien oraingo honetan gure galderei. **Bidaiarik arrakastatsuenak?** Egipto, Zalantzarik gabe, hori da bidairik eskatuena. **Batez beste zenbat gastatzen dute bezeroek?** Kalkulatzeko ateratzea ez da batere erraza, baina orain udan, bidaiak garestiagoak izaten direnez, pertsona bakoitzak 150.000 pta. inguru gastatzen ditu. **Nortzuk dira gehien bidaiatzen direnak?** Ezkonberriak, familiak... Udan jende gehiena joaten da edonora. **Bidaietan modarik al dago?** Nik ez nuke moda berba erabiliko. Jendeari leku berriak gustatzen zaizkio; beraz, bidaia berri bat ateratzen dugunean modan jartzen dela esan genezake. Orain, adibidez, Egiptoz gain, gehien eskatzen duten bidaia Birmania da. **Zuen eskaintzarik onena?** Munduari itzulia hilabete batean. Hori da, behintzat, deigarriena. **Aholku bat oporretan joan nahi dutenei:** Ondo informatzeko. Batzuetan jendeak ez daki ondo nora joango den eta horrek ezusteak ekartzen ditu. ^m



[berbetan]

Unax Ugalde

“Aktoreek baino gehiago, pertsonak sortzen didate zirrara”

Azkenaldian denen ahotan dabil Unax Ugalde. Dela telebistan egin dituen saioengatik, dela zinema filmengatik, aktore ezagun bilakatu da. Hala ere, Gasteizkoari ez zaio arrakasta burura igo, eta ahal duen neurrian bere egunerokotasunari eusten ahalegintzen da.

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martinez

Oraindik ere ongi asko gogoratzen ditu Euskadi Irratiko Maritxu Berritsu saioa aurkezten igaro zituen hiru urteak, edo Basauriko Antzerki Eskolako denbora. Unax Ugalde nor den galdetuta ere, ez du bere umiltasun puntua galtzen: nahikoa du “ni neu” erantzutea.

Zer moduz eramaten da ospea hain gaztea izanik?

Nahiko gaizki. Beno, batzuetan hobeto moldatzen naiz eta beste batzuetan okerrago. Neskekin eta horrelako zalapartaren erdian egoten garenean, jendeak uste izaten du promozio baten atzetik gabiltzala eta, normalean, horrelako pertsonak talenturik gabekoak izan ohi dira. Ez da beti horrela izaten, baina gehienetan, behintzat, horrela da. Nik neuk badakit lan publiko eta masibo batean nabilela, eta une honetan nire publikoa gehienbat 17 urteko neskatok dira. Dena den, ahal bezain ondo eramaten saiatzen naiz, baina nire helburua jende helduarengana iristea da, beraiek nire lana ontzat har dezatela.

Basauriko Antzerki Eskolan ikasi zenuen, garai hari buruz zer moduzko oroitzapenak dituzu?

Oroitzapen ugari ditut. Nire klaseko kideak, irakasleak, bertan ikasi nuena... Urtebete egon nintzen han, eta epe horretan ikasitakoa gogoan dut. Lan egiten dudanean burura etortzen zaizkit han ikasitako gauza asko.

Bizimodu berri honekin zerbait faltan somatzen al duzu?

Gehienbat intimitatea, eta kaletik lasai joateko aukera. Gurasoen falta ere sentitzen

dut, orain Madrilen bizi naizelako; lagunak ere bai, hiria. Beste gauza asko ditut orain, baina beste hainbaten falta ere sentitzen dut.

Gaur egungo Unax eta orain dela bi urtekoa pertsona bera al dira?

Pertsona bera dira. Ez naiz aldatu, moldatu baino ez. Nire lana eta nire ardurak orain askoz handiagoak dira. Eta horrekin aurrera joan behar dut eta lan egin behar dut. Horretara moldatu behar izan dut. Orain dela hiru urteko Unax ez da aldatu; lagun minek, gurasoek eta jende askok badakite hori.

Zinema ala telebista?

Oro har, zinema; baina rol onak zein txarrak berdin-berdin aurki daitezke batean zein bestean. Beraz, rol ona baldin bada, zinema zein telebista biak igual zaizkit, baina hori bai, rolak ona izan behar du.

Aktore izatearen alde txarra?

Ez dakit, norberak gustukoa duen zerbaitean lan egin ahal izatea luxua da. Niretzat aktore izateak ez du alde txarrik, asko gustatzen zaidalako. Alde txarrak eduki baditu, baina niretzat alde on gehiago ditu.

Eta zeintzuk dira alde on horiek?

Lanbidea bere osotasunean. Estreinaldiurreko tentsioa, adibidez, ona da.

Inoiz pentsatu al zenuen gaur egun zauden

tokiraino iritsiko zinenik?

Ezta inondik ere. Orain dela hiru urte ez nuen aktore izatea pentsatzen, beraz...

Denboran atzera egiteko aukera eskainiko balizute, zerbait aldatuko zenuke?


Orain ez dago atzera bueltatzeko modurik. Behin puntu batera helduta, atzera bueltatzea porrot egitea da. Eta hori norbere kontzientzian geratzen da, eta, gainera, jendeak ez du hain erraz ahaztuko. Nahiz eta harro egon eta mentalki indartsua izan, presioa handiegia da. Aurrera egin beharra dago; nik, behintzat, horrela ikusten dut.

Dena den, beti esan ohi da halako kasuetan jendearekiko tratua aldatu egiten dela.

Normala da jendeak gurekiko harremana aldatzea, baina lagun onek berdin jarraituko dute, ondo ezagutzen baitzaituzte. Baina noizbehinka ikusten dituzun horiek txundituta geratzen dira, galderak egiten dizkizute... Horrela izaten da, eta horren aurka ezin da ezer egin. Gauzak aldatu egiten dira eta, azkenean, ohitu egiten zara. Horrek, baina, ez dizu inori gauza itsusirik egiteko eskubiderik ematen. Gasteizera joaten naizenean agian 300 pertsonak gauza bera galdetzen didate; baina tira, zerbait polita iruditzen zait beraiek borondate onez egiten dute eta.

Azkenaldian zenbat elkarrizketa egin dizkizute?

“Orain dela bi urteko Unax ez da aldatu; lagun minek, gurasoek eta jende askok badakite hori”



[berbetan]

Kopuru zehatza ez dakit zein izango den, bi urte baitaramatzat elkarrizketarik elkarrizketa. Hirurehun? Laurehun? Gehiago agian.

Zuk parte hartu eta bereziki nabarmenduko zenukeen filmeren bat? Oroitzapen ona da proiektu berri batean hasten garen bakoitzean, film kideak ezagutzen ditugunean eta. Une on txiki asko ditut, baina bat nabarmentzekotan ez nuke jakingo zein aukeratu.

Gustuko duzun aktoreen bat? Aktoreek baino gehiago pertsonen sortzen didate zirrara. Hector Alterio ezagutzeak, adibidez, eragin handia izan zuen nigan. Aktore handia da, baina pertsona bezala... Ez nuke jakingo hura hitzez nola deskribatu.

Aktoreen mundua nahiko artifiziala omen da... Bai, kanpotik ikusita nahiko artifiziala da hori baita promozioek eskaintzen dutena. Baina barruan zaudenean, guztiok pertsonak garelako ohartzen zara. Bakoitzak bere arazoak dauzka.

Halako ideiekin nolatan zara aktore eta ez psikologo? Aktorearen lana psikologia bilatzea ere bada, pertsonaiaren psikologia. Gainera, askotan pertsonaia lotura estua du aktorearekin.

Horregatik, beti egoten gara kaleko jendeak egiten duenari adi, beren mugitzeko modua aztertzen, hizkera, portaera... Interesgarria da.

Zein aktoreengandik ikasi duzu gehien? Aktore handi askorekin lan egiten dut, eta ezin naiz bakar batekin geratu, batzuek gustukoa dudana zerbait dutelako, baina baita hain atsegina ez zaidan zerbait ere. Edo niri dena aplikatuta ez zait hainbeste gustatzen. Orduan, bakoitzetik puntu bat hartu behar

“Irailean Madrilen antzerki obra bat estreinatuko dugu. Telebistan ere hasiko naiz, ‘Peridistas’ teleailean urtebete egongo naiz pertsonaia finko baten rola egiten”

da. Aktore bakoitzetik gerora baliagarria izango zaizuna ikasi behar duzu. Ez daukat eredu zehatzik. Bakoitzak bere ahalmenekin jokatu behar du.

Beldur eszenikoa noizbait galtzen al da? Ez. Nik, behintzat, beti izan dut. Beldurra izatea kezka dituzun seinale da, eta nire ustez hori ona da. Ezin da beldurrez antzetera atera, baina beldurra eduki behar da pertsonaia bat ondo egiteko. Badaude aktore batzuk dena primeran egiten dutela pen-

tsatu eta beldurrik gabe taularatzen direnak, eta gero hankasartze itzelak egiten dituzte. Hobe da beldurrarekin egotea, tentsioa mantentzea, eta, ondoren, lasai ateratzea.

Maniarik? Bai, ziur naiz baten bat izango dudala, baina ez naiz horietaz ohartzen. Normalean, maniaren bat dugula konturatzen garenean gainetik kentzen ahalegintzen gara. Orain arte izan ditudanekin horrela egin dut, baina seguraski kanpotik ikusita baten bat

izango dut. Zeren nire esku balego, guztiak ezabatuko nituzke.

Epe laburrera, zeintzuk izango dira zure hurrengo proiektuak? Uztailean antzerki obra bat prestatzen hasiko naiz, irailean Madrilen estreinatuko dugu eta ondoren Espainia osora eramango dugu. Euskal Herrira ere joango gara. Telebistan ere hasiko naiz, Periodistas teleailean urtebete egongo bainaiz pertsonaia finko baten rola betetzen. m



SATISTEGI

CATHE

ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

% 94 46019 69

UK ALDIZKARIKO IRAKURLEOI: EUSKALDUNON EGUNKARIAK GONBIDATZEN ZAITUZTE

munduko musiken euskal herriko 2. jaialdia

zintzarrria

uztailak 20 • 21

hondarribia.guadalupeko gotorlekua

Toure-Toure • Vieja Trova Santiaguera • Marcio Faraco • Susana Seivane
J.C. Perez • Black Papa • Amparanoia • Kiko Veneno • Ke Rule • Mikel Urdangarin

4 sarrera zozketatzen ditugu!!

Egunkaria

Bete eta bidal ezazu txartela

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:..... Tel.:.....

EGUNKARIA / MARKETING:
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 300 222

egin zaitetz ALBEko bazkide!

Algortako Bertsolari Eskolak hasiera eman dio bazkide kanpainari. Hemendik aurrera gure eskualdeko bertsozaleak aukera izango du gure bertso familiako kide izateko, bai eta senidetasun horrek ekarriko dizkion abantailaz gozatzeko ere, hau da, eskolaren hileroko berripapera etxean dohainik jasotzekoa, eskolak antolatutako ekitaldi guztietara dohainik sartzeko, eta urtean behin argitaratuko dugun liburuxka -eskualean egindako ekitaldietako bertsorik onenak bilduko dituen argitalpena- jasotzekoa.

Horretarako, baina, pauso bi eman behar dira.
1) Euskadiko Kutxako gure kontuan 2.500 pta. sartu: 3035 0221 74 221000196.1
2) Zure izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria, helbidea eta telefonoa(k) paper batean idatzi eta guri helarazi postaz helbide honetara: Algortako Bertsolari Eskola / ITXASGANE kulturgunea / Karitate kalea, 1-16. Bulegoa / 48990 GETXO; edo helbide berorretara ekarri asteartean 18:30etatik 22:00etara eta gure eskolako edozein ordezkariari eman.



UK oportretan ere badoa!

IRAILEAN BERRIRO GATOZ...

...orrialde gehiagorekin, atal berriekin...

UK Aldizkaria...

...jaso nahi baduzu deitu baino ez duzu egin behar:

Pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676

Udako beharginak

Hondartzainak, aparkatzaileak, kobratzaileak, sorosleak,.... asko dira gure hondartzetan aurkitu ditzakegun langileak; batzuk udaleko edo Foru Aldundiko langileak dira eta besteak berriz, autonomoak. Guztiek udako langintzak egiten dituzte eta, eguzkitan egiten dituzten arren, lanak ez dira beti diruditen bezain atseginak. Langile hauekin egon gara eta hamaika historia kontatu dizkigute.

Testuak: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez

Tomás Rodríguez


Atxabiribil hondartzako auto aparkatzailea

Lan ordutegi arraroa benetan Tomásék daukana; asteen zehar, goizez dagoenean, 9:00etatik eguerdiko ordu batak eta 22 minutura arte egiten du lan, eta arratsalde ordu batak eta 22 minutuetatik seiak hamasei gutxiago arte. “Ez galdetu zergatik: ordutegia esan zigutenean neu ere harritu nintzen; ez da batere normala seiak laurden gutxiago arte kobratzea eta ordutik aurrera doan jartzea, baina, beno, guretzat hobeto”. Hala ere, ez dira hain onak laneko gorabehera guztiak; inoiz jendearekin arazoak sortzen dira nahiz eta, Tomásék argitu zigun bezala, eztabaida gehienak kobratzaileekin diren; “Noski, uste izaten dute bera dela kobratzen diena. Nik neuk gidariei non aparkatu dezaketen besterik ez diet esaten, eta ez da lan handia 150 auto baino ez dira

sartzen eta. Orain dela sei urte Barinatxe hondartzako aparkalekuan egon nintzen beharrea eta hura oso ezberdina zen; 1.500 auto inguru sartzen ziren han eta ea lekurik geratzen zen jakiteko gorriak ikusten genituen askotan”.

Ekainaren 15ean hasi ziren lanean udaleko langileak eta dagoeneko pasadizo batzuk gertatu zaizkie; “Egunero dago aipatzeko zerbait, baina orain arte ikusi dugun harrigarriena hor dagoen Ford Sierra horrena da; autoa hor dago gu hasi ginenetik eta Ertzainei esan genienean, orain dela bi urte baino gehiago, bajaran eman zutela jakin genuen. Kotxea irekita dago eta barruan Guardia Zibilaren giltzatak dago”. Argi dago, beraz, denetarik aurkitu daitekeela Sopolako hondartzako aparkalekuan; leku

“Gurea baino behar txarragoa da kobratzaileena, azken batean guk gidariei non aparkatu baino ez diegu esan behar”



Iratxe Piron

komun garbitzailea

Iratxe Pironék 20 urte baino ez ditu eta hau da bere lehenengo lana. Iaz bere amak lan bera egin zuen eta erraza eta lasaia zela kontatu zion arren, Iratxek ez zuen uste hainbesterako izango zenik. “Hiru ordu eta erdi baino ez dira (goizean 11:30etatik 15:00ak arte eta arratsaldean 15:00etatik 18:30ak arte) eta, gainera, oso lan gutxi daukagu. Komunak garbi egon behar dute beti... eta egoten dira, noski. Hori da gure lan bakarra eta, imajinatu dezakezunez, hiru ordu eta erdi horietan hori egiteko denbora badaukagu soberan eta irakurtzen eta musika entzuten ematen dugu denbora hemen”. Lehen komunak kobratzen zituzten eta inoiz ez ziren eztabaidak faltatzen, baina aurten gauzak guztiz ezberdinak dira; “Jendea oso jatorra da eta garbia ere bai. Ez dute inolako arazorik ematen. Kexak goiz zarratzen direlako baino ez dira izan eta guk ez daukagu zer ikusirik horretan. Beraz ni, orain arte behintzat, lasai-lasai nabil hemen, lan gutxi egiten eta nahiko ondo kobratzen. Ez da bizitza osorako lana, baina diru apur bat ateratzeko uda honetan ez dago txarto. Gainera, uda euritsua izango delakoan nago”. m

“Ez da bizitza osorako lana, baina uda honetan diru apur bat ateratzeko ez dago txarto”

Mikel Serrano

tabernaria Azkorriko hondartzan

Terrazako mahaiak eta aulkiak jartzen zebilen Mikel Serrano gaztea hurbildu ginenean. Atzerago, barran, bere amak jardunaldirako gauzak prestatzen zituen. “Taberna familiarra da hau”, azaldu zigun Mikelek: “Hamar urte daramatzagu hemen lan egiten eta jendeak ezagutzen gaitu. Hori guretzat abaintaila da; desabantailen artean komunik ez izatearena. Askotan eskatu diegu udaletxekoei baina kasurik ez; guztiz ulertezina da 2001. urtean horrela ibiltzea baina horrela da. Ibiltokia zabaldu zutenetik inoiz baino jende gehiago dabil hemendik eta zerbitzu gehiago eskatzen dituzte baina ez dago zer eginik”. Arrazoa dauka dudarik gabe Mikelek. Gu han egon ginen bitartean jende pilo bat baitzebilen hondartzarako bidetik nahiz eta eguraldia ez zen bereziki eguzkitsua. “Bandera urdinak zerikusi handia dauka jende gehiago etortzeko. Azkorrik daukanetik inoiz baino lagun gehiago hurbiltzen zaizkigu”, argitu zigun



“Hamar urte daramatzagu hemen lan egiten”



Unai Espina hondartzaina

Unai Espina eskarmentu handiko hondartzaina da; azkenengo urteotan hondartzako aurpegiarik ezagunenetariko bat da, udako lan hau ia urtero lortzen duelako. Eta ez da lan txarra; 35 ordu astero eta soldata ona. Hori bai; Unai, beste hondartzain guztiek bezala, behar ugari ditu... eta ondo betetzeko aukera gutxi. “Adibidez debekatuta dago hondartzetan biluzik egotea (Barinatzen izan ezik) edo eta txakurrik sartzea. Inork horietako bat egiten badu, guk esan diezaiogenu baina inoiz ez behartu. Gauzak txarto jartzen badira ertzainei deitu behar diegu; beraz, gure aginpidea oso mugatua da. Hala ere, aurten ez zaigu oraindik ezer larririk gertatu; momentuz jendea nahiko ondo portatzen ari da eta horrek beste lan batzuk egiteko aukera ematen digu; trafikoa zuzendu, aparkatzailei lagundu...”.

Hala ere beti dago pasadizoren bat; “Aurten gertaera aipagarriena hondartzatik zebilen txakur batena izan zen; dirudien ez zeukan jaberik eta txakurtegikoei deitu genien bila etortzeko. Harrapatzeko dardo bat bota zioten eta txakurra erdi lotan zegoenean jabea agertu zen. Mutilari, noski, ez zion grazia handirik egin bere txakurra horrelako egoera batean aurkitzeak, baina txakurraren jazarpena ikusi zutenek nahiko ondo pasatu zuten”.

Baina hondartzetan gertatzen den guztia ez da dibertigarria; “Aurten lapur asko dabilta; jendea kontrolatzen dute eta uretara joaten direnean poltsak lapurtzen dizkiete. Kontu handia eduki behar da horrekin; salaketa batzuk jarriak daude jadanik”. m

“Gure aginpidea oso mugatua da”

Jose Luis hondartza garbitzailea

Ez da batere eroso José Luis eta bere lankideen beharra; egunero goizeko 6:00etatik 10:00ak arte 12 lagun, bi taldetan banatuta, gure kostaldeko hondartzak txukuntzen dituzte jendea heltzen denerako garbi-garbi egon daitezen. Kamioak, traktoreak eta hondartzak garbitzeko makina berezi bat daukate lan gogor honetan laguntzeko, baina ez pentsa; gauza asko eskuz batu behar dira. “Adibidez ekainaren 22an, San Juan dela eta, 26 sute piztu zituzten Ereagan eta hurrengo goizean, garbitzera joan ginenean, batzuk piztuta jarraitzen zuten oraindik. Suak hondartza garbitzeko makina erre zuen eta ezin izan genituen egur guztiak kendu. Eta jendeak, noski, protesta egin zuen. Dagoeneko den-dena garbitu dugu, baina leku batzuetan oraindik ikus daitezke suteen arrastokak”. Hala ere, neguan lan gehiago daukate hondartza garbitzaileek; “Neguan itsasoak zarama gehiago ekartzen du hondartzetara (botilak, arropa, hildako animaliak, eta abar) eta hori gutxi balitz, gainera jende gutxiago gaude garbitzeko. Nik neuk, behintzat, uda nahiago dut”. Jendea gaur egun ere nahiko zikina izan daiteke: “Batzuk oraindik txerrikeria ugari egiten dituzte, bai; kleenexak eta zigarro asko aurkitzen ditugu baina, egia esan, jendea geroz eta kontzientziatuago dagoela



“Nahiago dut uda negua baino behar egiteko”



Juan Martín soroslea Gorrondatzen

Bandera gorria igotzen aurkitu genuen Juan gaztea Gorrondatxe hondartzan. Goizeko hamaikak ziren; bere jardunaldia hasteko ordua. “Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 8:00ak arte egon behar dugu hemen eta 10:30etatik aurrera asteburuetan. Ordu asko dira eta batzuetan, batez ere eguraldi txarra egiten duenean, nahiko astuna egiten zaigu”. Aurten sorosle moduan Juanen lehenengo urtea da; 21 baino ez ditu eta, hortaz, eskarmentu gutxi dauka; “Surfa egitea izugarri gustatzen zait eta Bizkaiko Sorosle Federazioak, beste gaitasun batzuen artean, hori ere kontuan hartzen du sorosleak aukeratzeko orduan. Sorosle izateko hondartza arriskutsu hauetan garrantzitsua da itsasoa ondo ezagutzea eta nork ezagutuko du ba surfistok baino hobeto?”. Argi dago, beraz, sorosleek ez dutela diruagatik soilik lan egiten; “Ez dugu asko kobratzen baina hondartzetan egoteak gure zaletasuna praktikatzeko aukera eskaintzen digu. Askotan gure lanaldia bukatu ondoren, surf ohola atera eta hemen geratzen gara ordu pare bat gehiago surf egiten”. Eta lanari buruz? Orain arte, zorionez, Juanek ez dauka gauza handirik kontatzeko; “Oraindik ez dugu erreskaterik egin eta ez da inolako ikaraldirik gertatu. Urradurak eta garrantzi handirik gabeko ebaketak dira orain arte tratatu ditugun istripurik larrienak. Eta horrela jarrai deza-

“Eguraldi txarra egiten duenean, nahiko astuna egiten zaigu lana”

Beñat Garcia kobratzailea Atxabiribilen

Beñatek 20 urte beteko ditu datorren hilean eta zuzenbidea ikasten ari da. Hau bere lehenengo esperientzia da udako langile legez eta berritsu xamar eta alai aurkitu genuen lan nahikotxu zuen arren. Bere beharra aparkalekuan sartzen direnei kobratzea da eta ez da ez lan erraza. “Kobratzaileok eztabaida ugari ditugu jendearekin. Egia esan, onartu behar dugu aparkalekua ez dela bat ere merkea (500 pezeta balio du) baina beste herri batzuetan ezarri duten TAOa ere ez, eta jendea ez da kexatzen, edo behintzat ez digute guri errua leporatzen. Ni langile hutsa naiz eta jendeak hori uler dezala nahiko nuke”. Argi dagoenez, hondartzetan dabilzan kobratzaileek ez dute propinarik jasotzen. “Ezta pentsatu ere. Ni pozik nabil jendearekin arazorik ez daukadan egunetan, baina esan dizudanez, beti gertatzen da zerbait. Orokorrean jendea jatorra izaten da baina eguzkiak gogor jotzen duenean batzuei burmuina urtzen zaiela dirudi. Ordaindu behar dela esaten diedanean hauek dira gehien entzuten ditudan gauzak: “No jodas!”, “Hau lotsagarria da”, “Lapur hutsak zarete”, “Baina, baina.., zu nork jarri zaitu kobratzen?”, “Ez dakit nik hau legala izango den...”. Koaderno bat bete nezake nik hemen entzun behar izan ditudan astakeriekin.



“Eguzkiak gogor jotzen duenean batzuei burmuina urtzen zaiela dirudi”

Gureberbakere 5 ZER ESAN

Testua: Xabi Bilbao

Konseju eskátuten

- Ze diñozu zuk?
- Ze deritxozu?
- Ze péntzaten dozu?

- Ze ingot? (zer egingo dot?)
- Ze erósikot?
- Ze eskátukotzet? (zer eskatuko dotzet)

- Nori géitukotzet?
- Nora yóngo naz?
- Non lótuko naz?
- Nóaz étorko naz átzera?
- Noz úrtengot?

- Zélan tópakot léku?
- Zénbet eskátukotzet?
- Zéin ékarkot?
*(bean dekozuez pregúntek íteko bér-bak)

- Neuk érongot automóbille?
- Aitxeri eskátukotzet giltze?
- Biden erósiko du yánari?
- Ordenadora konpónduten/kónpontzen érongot? Ala barri erosi?

Konseju émoten

- Hoba dozu...
- Hoba dozu zeuk éron anajek báño.
- Hoba dozu aitxeri eskatu osaberi báño.

- Nik (hau edo beste) ingo nauke.
- Nik etzétik érongo nauke yánari .
Ni trenan yongo nestike (nintzateke).

- Zéitik ez...?
- Zéitik eztozu biderako yánari etzétik éroten?
- Zéitik ézoaz trenan, áuton yon berren?

- Hau íten bádozu...
- Trenan bázoaz lasáiau íngosu bide.
- Gúez bázatoz ederto pásakozu.

*Preguntak íteko berbak:

—nor? nori? nok? / ze(r)? zeri? zek?
—nona, noin, noñe? / zena?
—nóintzeko? nóntzako?
—nóaz? / zéaz?
—non? nora? nóraño? nongo?
nóndi(k)?
—noz? nóztik? nózik ona? nozártén?
—zein? zélan? zéitik? zetako? zetan?
zean? zénbet?

Berba bárrik:

geitu, géituten / géitzen, géituko: deitu
lotu, lóututen/lótzen, lótuko: gelditu
topa, tópaten, tópako: aurkitu

[akabuko punte]

JoneZelaia

Nekazaritza-estudiok aurten akabako deitxu Urdulizko onek neskak. Euskaltsale, naturasale eta animaliasale “fanatiku” da eta oso gaste (20 urte deko) ixen arren, argi deko ser gure deun eta seguru gaus kosegiduko deula. Beran estudion eta euskeran ganen egin dogu berba.

Testua: Alberto Gonzalez Castro / Erretratua: Mikel Martinez

EUSKERA

Nongok dira familikok?

Aittamak Urdulizkok, amama bere bai eta aittitte Berangoko.

Selan ikisi dosu euskeras?

Beti iñ dot, txikitatik. Nire etzen, normalean euskeras itten da. Amak ez daki; ulertu, dana itten dau, baya jakin ez, baya euskaltegian dabil. Aittak gues euskeras itten deu. Alan ta dusti bere, nik darabildan euskera es da aitta edo aittittena. Nik ikastolan ikisi nendun eta nastata dekos orrek euskera bi. Bederatzi urte euki nendunen, ordun asi nintxen erderas ikisten; asike, asikeratik bederatzi urtetara bakarrik euskeras. Etzen beti emon dako inportantzi asko euskerari eta beti euskeras. Ikastolan sartu nintxenen, ikastolan bere asikeratik euskeras egin neun; baya irugarren mailatik asi ginen erderasko klaseak (lenguaje) emoten eta ordun asi nintxen erderas ikisten; kalean 12 urtetaraino euskeras bere, baya gero, klaro, lagunekas, denak es dakie euskeras eta ordun ya oiñ dala amar urtetik ona apanes itten dot euskeras lagunekas, eurak es dakielako. Espabere..., igual bai, klasekokas-eta asko, bai. Se Derioko Nekazaritza Eskolan kasi denak, dustik euskeras dakie.

Sein da eukeran situasiño Urdulizen?

Oso txarra. Jente gitxik..., nire edadeko neskek ba, euskera apurtxo bet dakie. Gurasok beti jakin ixan deude, baya gero, beren alabari es deutze eser bere emon; gitxi, etzen apurtxu bet intte, bai, konosiminttu gitxi dekes, baya giaurik es.

Seaitxik ori?

Geien bat, nire ustez, eurek eman deutze inportantzi asko se ingo san, datorren urten, gero ametik amar urtetara, seguru

antzen, es da egongo euskerarik, es eseberes. Ordun, erderas artu yotzen eta ordun, erderas artute, eurek esin ixan deude -beno esiñ eta gure es- euskera estudia. Asko oiñ asi dire ya apurtxu bet pentzaten ostabere euskeras apurtxu bet itte, “æk” batetara sartzen,... Eta beste arazo bat bere bai: asko dire igual saspi ume-edo dire, saspi anaia-rreba eta ordun, klaro, euskera ordun ixan san bakarrik pribatu eta saspi ume eukitte, ikastola batean, pribatuan ba, gatxa.

NEKAZARITZA

Ser ikisten saus Derioko Nekazaritza Eskolan?

Da gradu medio eta bi urte dires eta daus forestala edo jardineru edo agronomo, eta ni agronomo nas. Agronomok inbernaderotan itten deude bear. Gero, “Produccion de Plantas” bere itten da. Klaru, guk gure dogu iñ euskeras ori modulo, se es dau modularik euskeras ori itteko. Bigarren mailan nau, akabaten nau. Oiñ a, datorren astean azterketak dekodas eta akabako dot. Kurrikuluma osatuteko gure dotena iñ da kursillok. Edo gero bere gusta dast asko Osteleri itte, gusta dast a, sukaldean egon ta arriko eta ori dana itte gusta dast. Igual gusta dast, igual beste modulo itteko, Leioan unibertsitatean.

Nondik dekosu solorako ori saletasuna?

Aittittetik. Txikitatik igual apurtxu bet aittitte ikus dot. Aittittek solo deko eta aurten itxi iñ doste solo erdiñ itten, gure dote-na itteko eta gero, nire ametsa esateko, basarri bat eukitte neure inbernaderokas. Beti ixan nas animalien fanatiku eta beti gusta iñ dates landarek, kultura ortan asi nintxen; beyek, txakurrak eta denetarik, denak gusta dates. Iru txakur dekoas, iguana bat, lau dortoka eta bi arrain.

Badekosu udarako planik?

Bear iñ inbernaderotan, Berangoko inbernaderotan edo, espabere, Barrenetxekon. Barrenetxeko da Butroi ganen daun inbernadero pillo bet eta andik tomate eta piperrak, ak batuten. Negurako bere bear ope-tzi deuste. Koperatiba da, Mondragon kooperatiban barruan dau. Ni yon nintxen lagun bateas itten berba eta esan yeusten, bueno ba, jente espezializatu gitxi daula eta ordun, bear deke, naye, eta es deke jenterik, dakiena. Klaro, es dakiena bai, gaste pillo bat, baya es dakie esebere. Baya segidun bear itteko, ori da txarrena. Badau ya kondiziño txarretan, se agronomo txarra da, se, dekona da es dekosula parorik, esetako bere, eta bakasiñotarako beres. Ordun klaro... Eta gero “seguridad social” suk paga ber dosu, es dotzue eurek pagaten. Solusiño da suk imintte seoser. Ordun da irabasten dosunen eta gure dosuna itten dosu ta gustura saus; beno, ori arlo dustietan, baya gurean, beintzet, gatxa da beste batentzako bear itte, se esklabo da.

Nekazaritza biologikoa eta yanan ganen oiñ daun ardurean ganen ser pentzaten dosu suk?

Alde batera, arrazoi andia deke. Gero eta giau kontaminaten gaus. Produktuk naye botaten dotzus lurrari ta asko kenduten du, zizareak eta ori dana; eske il itten dus. Eta ba bai, iñ al dana ondo dau, baya diru asko ber da onetako be. Fasilie da esate “es, es bota ori, se ori txarra da lurrantzako”. Bai, baya se asi iñgo dosu? Espabere, produsiño dana botaten dosu. Esiñ dosu esebere iñ. Ori botaten dosu edo dana galdutensu. Espabere ... , eta es badosu botaten egunero aittu bersu badekosu plaga edo badekosu bitxoren bat; badekosu, kendu ori landare, landare ya galdu iñ dosu eta gero, ya daus “remedio caseros” baya “komillatan” daus ondiño. Alan ta dusti bere, emen itten da nekazaritza biologikoa; da plaga bat dekosunen, beste plaga bateas konbatidu itten da. Egitten dosuna da, plaga batek bestea yan eta beno, onek kendu itten dotzu seoser. Karu da, oso karu; baya, alan ta dusti bere, itten da. Eta erlekas bere polinizateko-eta, erleekas itten da asko. Erle kaxek iminten dires inbernaderotan, orrek poliniza itten deude.

“Nire ametsa: basarri bat eukitte neure inbernaderokas”

[bertako euskeran ganen]



Kliman kanbio dala ta, esaten deude esiñ dala len ereitten eudesan jenero batzuk oiñ imini solon. Ori egi da. Bai, diñoude egi dala. Nik entzun dot, se len desbardínek ixan siren, oiñ esin dosu imini, se umedade asko dau eta oiñ igual eguskik bere asko yoten dau; ordun mekanismok apurtxu bet dekosus berantza. Ordun kendu itten dosu ori eta beste bat imintten dosu eta listo.

Amen, normalean, ser ereitten da?

Nire ausokok deko letxuge, piperra eta

tomate, dena, bakarrik deko ori. Produsiño handi da eta gero maioristeri saldu ittentze, Bilboko merkatuan. Eta gero Gatican bere deko. Gero Butroikok eta dekos bere bai. Urdulizen bakarrik dau, Gorordo da bat, nire auzoko, eta gero beste bat. Gero produsiño txiki asko daus eta gero ya, bai, madarik eta sagarrak eta ori landatu itten da. Orrek feritxen saldu itten deude. m

OHARRA

Artikulu hauetan darabiltzagun ortografia eta idazkerari dagozkionez, ahozko hizkuntza fidelki jasotzea dugu helburu. Ikusi Iñaki Gaminderen liburuak eta Iñaki Gilisastiren hiztegia ere, lan eskergak benetan eta guri oso lagungarri gertatu zaizkigunak zalantzarik izan dugunetan.

[uribertsoan barrena]

Udakoeskaintza


Bertsozalearen testa. Irakurri arretaz eta erantzun galderari: “Uda. Uda heldu da. Hau da uda! Parranda. Parranderoa. Parrandaroa. Bertsoa. Bertso jaitsua. Jai bertsotsua. Zu eta ni. Ni eta zu. Ilargipean biluzik. Biluzik ilargipean. Bero. Ero. Pello Bonbero? Sua amatetan. Bertan. Zertan? Zertan egingo dugu, zuk eta nik, nik eta zuk, une hortan, bertan, egoera, jarrera eta beroaldi HORTAN, HORTAN, HORTAN???”

Erantzuna: BERTSOTAN! Erantzun baduzu, bertsozale petoa zara, erromantikoezia aukeran. Errima hobea erabili baduzu, poetikotasun gutxiko amaiera eman diozu testari, baina behintzat zintzo jokatu duzu zeure grinarekiko!

Testuak: Xabier Paia, Josu Arroio eta Joseba Santxo

Portu Zaharra abiapuntu Badirudi “Balkoitik balkoira” bertso ekitaldiaren formatoa ondo sustraitu dela gurean. Horixe erakutsi zuen, behintzat, ekainaren 22ko iluntzean Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan batu zen jendetzak. Badirudi, bestetik, Portu Zaharra dela ekitaldi berezi horrek behar zuen eszenatokia. Horixe pentsa daiteke, behintzat, hango giro lasai, kresaltsu eta tipikoan jendea zeinen gustura egoten den ikusita. Bertsolarien jardunari buruz, berriz, iritzi kontrajarriak jaso genituen Etxetxu plazan bertan eta lehenengo zatia amaitu eta gero. Batzuek asko estimatu zituzten lehenengo balkoialdiko bertso jantzi, dotore eta metaforikoak. Beste batzuek, berriz, iaz Irazuk eta Lujanbiok egin zuten saio bizia eta umoretsua ekarri zuten gogora, bizitasun minez edo. Bigarren zatia, oster, guztien gustuko gertatu omen zen. Igor Elortza balkoitik jaitsi eta jendar-tean kablebako mikroitik kantatzen hasteak urduri jarri zuen bat baino gehiago. Balkoitik plazarako zatiaren ondorena ere ez zen makala izan. Jon Maia berotu eta azkenean bera ere jaitsi zen jendartera, entzuleen poza areagotuz. Amaitu plaza erdian egin zuten bertsolari-ek, puntukako jardun luze bezain umoretsuaren ostean. Azken traka koloretsu honek lehengo barrikuko balkoialdia orain arteko onena izan dela aitortzera eramane zuen zale asko. Hori horrela den edo ez den eztabaidan hasi barik, gauza bat argi daukagu guk: datorren urtean datozenek nahiko lan izango dute orain arteko mailari eusten. Euren alde, berriz, lekua, giroa eta jendea izango dute, saio horretako magia sorgintzailea hiru osagai horien baitan baitago. Eutsi goiari!

“Gaijartzaile karrusela: made in Uribe Kosta”



Igor Elortza, Peresiena etxeko balkoitik portzaharreratuena belarri-bihotzak bertsoz goxatuz.


Bitarteko mundiala Portu Zaharreko giroak berotu bazaitu -eta bestela ere berdin- badaukazu nondik jarraitu: uztailearen 11an Algortako Bihotz Alai plazan bertso jaialdi mundiala daukazu. Bertso jaialdi mundialera bertsolari mundialak etorri ohi dira. Aurtengoa ez da salbuespena izango: Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Aritz Lopategi eta Jexux Mari Irazu. Gaien inguruan badago nobedaderik. Aurten eskualdeko gaijartzaileen karrusela ipiniko dugu martxan. Zer den hori? Bada, gaijartzaile bakarra egon beharrean, hainbat gaijartzaile egotea bertsolarien eta entzuleen zerbitzura. Hori da sorpresa bakarra? Ez, baina hemen ez ditugu denak esango, bestela ez bailirateke sorpresa izango. Esan dezakegun gauza bakarra da jaialdia mundiala izan

dadin, zuen moduko jende mundiala behar dugula. Ez egin huts, malmutz!

Bertsoz ligatzea helburu

Udaldia sasoi aproposa izan daiteke gauza askotarako, besteak beste, bertso ederrak entzuteko edota bertsoan trebatzeko. Dena dela, ez da komeni helburu handinahiegirik jartzetik, horrek mesede baino kalte egin baitiezaguke. Bere burua bertsozaleatzen daukan edonork bertso giroan norbait natural-natural eza-gutu eta bertsoaren aitzakian apur bat ligatzea lortzen badu, konforme egon liteke, baldin eta norbait horrek maitasun aitortza bertsoan egiten bahartzen ez badu. Halandaze, ondoan gure eskualdeko bertso makroagenda aurkeztuko dizuegu, bertso giro natural hori neke handirik gabe topa dezazuen. Ebaki eta sartu uda osoan erabiliko dituzun praktetako poltsiko-

Albero Elosegi. Iurria: Xarpelak dokumentazio zentroa



10ekotxikian Irazu

- 2001eko Txapelketa Nagusia irabazteko faboritoen zerrendan omen hago hi. Zer uste duk hik? Faboritoe Egaña dela, dudarik gabe. Beste gauza bat da gazteak ez garelara orain lau urteko gazteak.
- Irazuk behinola etxeak okupatzen zizkian. Zer okupatzen dik gauregun? Hernaniko Kronikako lokal koxkor bat eta bertso plaza batzuk, gusto haundiz.
- Bertsotan arina, zorrotza eta umoretsua haiz hi. Bestela ere horrelakoa al haiz? Arina eta zorrotza ez dira bateragarriak. Zorroztasuna, baldin badator behintzat, sakonetik datorrelako. Umoretsua? Ez beti. Bestela ere horrela ote naizen? Gutxi gora behera bai.
- Hik filosofia ikasketak egin dituk. Ba al dituk elkarren antzik filosofiak eta bertsolariak? Haundia. Filosofiak munduari (edo munduei?) idazten dio eta bertsolariak munduei kantatzen die. Platonentzat Ideak ziren kontzeptu gorena eta bertsoan ere idea onak behar dira. Hala ere, uste dut filosofia antropologikoarekin zer ikusi gehiago duela. Bertsolarietan lekuko lan asko egin behar da.
- Euskal Herri osoko plazetan ibili haiz bertsoan. Definitu adjektibo banarekin herrialdeetako bertsozaleak. Arabakoak: berriak; Bizkaikoak: gozoak; Gipuzkoakoak: esijenteak eta zorrotzak; Iparraldekoak: lehengoak 'espiritualak', oraingoak gehienak 'hegoaldekoak'; Nafarroakoak: beroak.
- Zer sentitzen duk kantatu behar duan bertsoaio batera ordu erdi beranduago iristen haizenean? Lotsa.
- Bota hiru hitz "Irazu" izenarekin erimaten dutenak: adizu, dizu eta balitzaizu.
- Azaldu Larraul non dagoen hire jaioterria ezagutu nahi duen bati. Munduko leku politentsuenean. Tolosa-Billabona-Asteasu eta Larraul. Ernio mendiaren magalean dago eta 6 herri ikusten dira handik begira jarrita. Aterpetxea, frontoia eta parkea baditu. 140 lagun inguru bizi dira.
- Aurtengo udan bost saio dauzkak Uribe Kostan (guk dakigula). Zer arraio zeukak Irazuk horren estimatua izateko! Antolatzaileei galdetu.
- Egin zortziko txiki bat zazpigarren erantzuneko errimekin (Irazu barne), baina dedikatu Uribe Kostan dituan jarraitzaile guztiei. Uribeko entzule / maitea adizu: / nere barruak garbi / hitz egingo dizu. / Ondo kantatzeaz gain / konforme Irazu, / bost saiotara garaiz / joango balitzaizu.



Ebaki eta sartu uda osoan erabili bai, baina garbituko ez dituzun praktetako poltsikoan.

Bertsoagenda 2001UDA

UZTAILA

- Uztailak 11.** Bertso jaialdi mundiala. **Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Aritz Lopategi** eta **Jexux Mari Irazu.** Eskualdeko gaijartzaile karrusela. 22:00. Algortako Bihotz Alai plaza. Getxo.
- Uztailak 15.** Bertsoaioa. Neguriko Karmengo jaiak. **Unai Iturriaga, Etxahun Lekue** eta **Xabier Paia.** 19:00. Neguriko Gernika plaza. Getxo.
- Uztailak 25.** Bertso jai. Getxoko Santiago jai, Paellada eguna. **Algortako Bertsolari Eskolako partaideak.** Egunean zehar. Getxoko Andra Mariko Aixerrotako zelaia. ALBE eta Bizarra Lepoan elkarteen tolopean. Getxo.
- Uztailak 28.** Bertsoaioa. Algortako San Inazio jaiak. **Maialen Lujanbio, Xebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu** eta **Andoni Egaña.** 13:30. Algortako Kasinoko plaza. Getxo.
- Uztailak 28.** Bertsoaioa. Gorlizko jaiak. **Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Igor Elortza** eta **Maialen Lujanbio.** 20:00. Iberre-barri plaza. Gorliz.
- Uztailak 29.** Bertsoaioa. Algortako San Inazio jaiak. **Fredi Paia, Xabi Paia, Arkaitz Estiballes** eta **Igor Elortza.** 13:30. Algortako Kasinoko plaza. Getxo.
- Uztailak 30.** Bertso paper emanaldia. Algortako San Inazio jaiak. Bertso paper aukeratuaren kontaketa eta kantaketa **Josu Landeta** bertsolariaren eskutik. 13:30. Algortako Kasinoko plaza. Getxo.
- Uztailak 31.** Bertsoaioa. Algortako San Inazio jaiak. **Aritz Lopategi, Unai Iturriaga, Oihane Enbeita** eta **Jon Maia.** 13:30. Algortako Kasinoko plaza. Getxo.
- ABUZTUA
- Abuztuak 3.** Bertsoaioa. Erromoko jaiak. **Jexux Mari Irazu, Jokin Sorozabal, Etxahun Lekue** eta **Amaia Agirre.** 20:30. Erromoko Santa Eugenia ikastetxeko jolasgunea. Getxo.
- Abuztuak 4.** Bertsoaioa. Erromoko jaiak. **Anjel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Xabier Legarreta "Arano"** eta **Beñat Gaztelurrutia.** 13:00. Erromoko Santa Eugenia ikastetxeko jolasgunea. Getxo.
- Abuztuak 12.** Bertsoaioa. Algortako Portu Zaharreko jaiak, marmitako eguna. **Mañukorta, Xabier Arriaga "Txiplas"** eta **Fredi Paia.** 16:30. Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plaza. Getxo.
- IRAILA
- Irailak 1.** Bertsoaioa. Erandioko San Agustin jaiak. **Oihane Enbeita, Jon Maia, Igor Elortza** eta **Amaia Agirre.** 20:00. Erandioko udaletxeko plaza. Erandio behekoa.
- Irailak 23.** Bertsoaioa. Areetako Mesedeetako Amaren jaiak. **Jexux Mari Irazu, Fredi Paia** eta **Xabier Paia.** 19:00. Areetako Geltoki plaza. Getxo.
- OHARRA: Seguruantzean saio bat edo beste lotuko zan gure makroagendaik kanpo, halandaze argi ibili eta alitu han-hemengo kartel eta jai egitarauai, bertso ekitaldi ederrez hornitutako uda uda zorian suaren sinonimoa izan daiteke eta. Ondo pasa, mahaspasa!





gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txipiroiak tipula eta onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain eskasa da. Hala ere, lortzeak eskatzen duen ahaleginak merezi duelakoan nago ni. Hasteko txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, ondorengo ondo garbitzea da. Irinetik pasatu eta gero oliba oliotan salteatu. Nik berakatzagaz batera egiten ditut, hasieratik zapore hau har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondorengo olio berean, julianan zatitutako tipula egiten jarri su ahulean. Tipula eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo belzak, aparte salteatu behar dira eta egindakoan besterekin nahastu. Ez zaizue damutuko! ^m

osagaiak (2 lagunentzat)

800 gramo Abrako txipioi • 400 gramo onddo beltz • hiru kipula koñaka • oliba olio • irina • gatza • arrain salda



MIKEL MARTINEZ



itsaso arana / jolastoki-koa

Upelak kontuan hartzeko aholkuak

Ardoa eta upelaren artean, ardoaren bilakaeran eragina duten makina bat erreakzio eta trukaketa gertatzen dira, eta hauek ardoa dastatzean baino ezin dira igarri; esaterako, haritzaren tanino garratzen eta hollejo-en tanino gozoen arteko fusioa, edo egurraren bainila ikutu finak...

Lehenago gustua. Egur zaporeak eta aroztegikoak ohizkoak ziren antzinako Errioxa ardoetan, baina hau upeletan denbora gehiago egoteagatik baino, ardoaren izaera ahulagatik gertatzen zen. Jeneralean heldutasun gutxiko ardoak izaten ziren, ñabardurarik gabekoak. Arrazoia, egurrean zehar sartzen zen oxigenoa baino, lekualdeketetan (trasiegoetan) gertatzen zen gehiegizko aireztatzea.

Oraingo gustua. Gaur egun, aurkako puntura jo da. Upeletan denbora gutxiago egoten da ardoa eta lekualdaketa gutxiagorekin botilaratzen da. Gehiago igartzen dira ondutako hollejo-en zapore konplexuak, eta horregatik freskura atsegina erakusten dute. Horrela, ba, haritzetik jasotako ñabardurak fruituaren lehen aromekin eta mahatsaren berezko aromekin elkartzen dira.

Ardoa zahartzeko egurrik onenak

Espanian Ameriketako haritza erabili izan da, batez ere, merkea eta eskuratzeko erraza zelako. Orain Frantziakoa gehiago erabiltzen da.

Frantziako haritza: haritz honekin eginiko upeletan ondu diren zuriek zein beltzek ikutu kremoso eta bainilazkoa izaten dute. Aldi berean, gozoago bihurtzeko joera izaten dute.

Ameriketako haritza: ardoa egur zapore handiagokoa eta erasokorra izaten da, egur honek tanino asko dituelako. Gero ikutu torrefaktuak azaltzen dira eta arometan aberastasun handia.

Errusiako haritza: gutxi erabiltzen da eta duen ezaugarriarik aipagarriena zera da, ardoari zedroaren antzeko perfumeak ematen dizkiola. Amerikarra baino kremosoagoa eta ez hain erasokorra. ^m

Gaur egun egiten ditugun ospakizunek eta antzinakoek ez dute elkarren antzik ere, eta are gutxiago gauzez egiten ditugun jaialdiak eta gau-pasak.

Testua: Akaitze Kamiruaga



"Erromeria Berangon," Aurelio Artetaren margolana

San Juan, San Pedro, Santa Mariñe, Magdalenak, Santiago, San Inazio... heldu dira zorionez udako jaiak eta eurekin batera parrandarako aitzakia, batzuk, egia esan, parrandarako aitzakia handirik behar ez dugun arren.

Baina gaur egun egiten ditugun ospakizunek eta antzinakoek ez dute elkarren antzik ere ez, eta are gutxiago gauzez egiten ditugun jaialdiak eta gau-pasak.

Antzina dantza, erromeria, edo inguru honetan esaten dugun legez, jolasa, era bitakoa izaten zen, batetik domekaro (garizuman eta aste santuan izan ezik), ilundeko zortziak edo bederztiak arte, abemariak jo arte egiten zena, eta bestetik jaiegunetan eta herriko jaietan gauerdira arte egiten zena.

Erromeria gazteen bilgunea izaten zen, lagun berriak ezagutu eta betikoak ikusteko aukera ederra. Neskak hamahiru-hamalau urte beteta joaten hasten ziren, eta mutilak hamabost-hamaseirekin. Gaztezoagoak ere joaten ziren, baina bazter baten geratzen ziren ikusten, dantza egin barik. Kontuan izan behar dugu orain hamarkada batzuk neska-mu-

tilek elkar ikusteko aukera gutxi izaten zutela, eta horregatik ez zuten erromerietara joateko aukerarik alferrik galtzen.

Jolasa egiteko leku nagusia, herriko plaza izan da beti, baina frontoietan, larreetan, eta egun seinatuetao erromeriak direla eta, baselizen inguruetan ere egin izan dira.

Mende hasieran gehien egiten ziren dantzak biribilketa, jota edo fandangoa eta arin-arina edo porrusalda izan dira. Dantza solte hauez gain dantza lotua edo baltseoa ere egiten zen, lehenengo neskak nesketara eta gero, lar arrimatu barik, neska-mutilak elkarrekin, beti ere mutilak dantza eskatu ostean.

Gehien erabiltzen ziren musika tresnak txistua eta danbolina; soinua, eta gaur egun berriro ere hain modan paratu den trikitrixa eta panderoa izaten ziren. Askotan musika tresnekin batera koplak abesten ziren, eta hauetako bat erabiliko dut honi amaiera emateko: Hauxe da despedidea, despedidearen tristeza, agur aita eta ama, agur neure maitea.


Ondo pasa eta gutxi gasta, eta bada-kizue, bueltak amari! ^m

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixtarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53
HIRURAK

Sarrikobaso 15 48990

Loteria Sopela

Iparagirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Lau bide 7 • Tlf/Fax: 94 676 52 40 • SOPELA
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

I

Iñaki Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Hau izan liteke zure bizitzako udarik zoragarriena; magia betetako gauak bizitzeko aukera izango duzu. Eragozpen bakar bat: zaindu zure patrika; eskuzabala izatea ondo dago baina gauza bakoitza bere neurrian.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Buruaz gain gosca ere galtzen ari zara ezagutu duzun pertsona horren eraginez. Kontuz, dena eman aurretik berak zueganako interes bera duen jakin beharko zenuke; atsekabe galanta har dezakezu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Batuzetan barkamena eskatzea beharrezkoa da; batez ere maite dituzun pertsonak bitartean daudenean. Ez zaituz burugorrra izan. Lan arloan, orain arte erakutsi duzun ardura fruituak emango ditu.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ez zaituz horren harroputza izan: egia da azkenengo bolada honetan gauzak ondo baino hobeto atera zaizkizula, baina egun guztiek daukate bere gaua. Maitasunean lorez lore zabilta baina kontuz, lore

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ate bat zarratzen denean beste bat zabalitzen da. Erne egon zaituz eta aditu zure ingurua; ezuste bat baino gehiago izango duzu. Kontuz eskatzen duzunarekin... lor zenezake eta.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zure inguruko pertsona bat zorutzen ari da zure arreta lortu nahian, baina iraganeko gertakizunek itsutu egiten zaituzte. Jarrera horrekin sor litezkeen aukerak deuseztatzen ari zara. Argi ibili!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Aukera ezin hobea zure laranja erdia aurkitzeko. Badakizu jaiak mesedegarriak direla horrelako egoerak zuzentzeko edo, behintzat, larritasunak apaltzeko. Hori bai, zaindu zure burua eta ez zaituz gehikeriatan erori.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Astialdi ederra bizitzen ari zara eta, gainera, hurrengo egunetan gauzak hobera joango dira. Arazo txikiak sortuko dira bihotzeko kontuetan, baina ez eman gauzei daukatena baino garrantzi handiagorik.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Oporrak hartzeko aukera baldin baduzu, konplexu barik har itzazu. Oso lanpetuta ibili zara aspaldi honetan eta merezi dituzu. Apur bat lasaitzen bazara, senideekin momentu goxoak eta estuagoak biziko dituzu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Pixkanaka-pixkanaka asmo berriak loratzen hasi dira zure barnean. Uda oso garai ona da kalera ateratzeko eta jende berria ezagutzeko. Alferkeria alde batera utzi eta aspaldiko harremanak berpizten ahalegindu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Lasai, txarto ateratzen diren gauzek beti dute konponbiderrin bat eta. Ez zaituz larregi estutu eta kontrolatu zure umore txarra senide eta lagunien pazientzia amaitu nahi ez baduzu behintzat.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zakarregia zara eta askotan ingurukoie min egiten diezu jarrera horrekin. Agian, horregatik sentitzen zara hain txarto zeure buruarekin? Zure akatsetaz ikasi eta saiatu zaituz ez errepikatzen.

[komikia]

jesus, nire bihotzekoa... nire otoitzetan aitite eta amama gogoratu nahi ditut...

baina seme, aitite ez dago hilda

baina premonizio hilgarria izan balitz bezala, biharamunean...

...aitite hil zen. baina umeak bazuen bere otoitzetarako jende gehiago zain

amama gaixoa be bat-batean hil zen. eta egun batean...

...nire aita zaindu!

geroago...

uf! denaondo dabil...

jesus bihotzekoa... oraingoan ...

jainkoarren! gaur hilgo naiz!

arraioa! hilda suertatu ez naizenean...

egun osoa beldurrak jota igaro zuen gizajoak, harik eta azkenean etxera heldu zen arte...

zer esango didazu niri ba! butaneroa orain dela guxi hil da!

lazzana, ezin duzu imajinatu ere egin ze egun txarra pasatu dudana... baina bizirik nago!

BUKATU DA!

MUNGIA

oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

[flash back]



Bitor Egurola

“Antzarrak” koadrila 1978ko paella egunean Goikoa Martin Mugikak urzitako argazkia duzue, Aixerrota inguruko landa batean orain dela 23 urte paella egunean hartutakoa. Erretiratu koadrilako batzuek falta dira baina nolabait euren hutsunea betetzeren dute bertan dauden Azkoitiko lagunek. Antzarrak taldea 30 lagun inguruk osatzen zuten eta dute. Getxo I Institutuan ikasle zirenean, 1970 aldera, elkartzen dira urtero, hauek dira hutsik egin ezin dezaketen hitzordu horiek: paella eguna, San Inazio egunaren bezperako afaria (gizonezkoak txokoan eta emakumezkoak jaretxean), San Lorentzo egunean hamaiketakoa txokoan azokan erositako jeneroaz, eta handik egun gutxitara marmittako jana, Porru Zaharreko jaitetan.

Zutunik: Cristina Gonzalez, Jose Basagoti, Itziar Lekueta, Karmele Amuriza, Jon Elorriaga, Beni Idarraga, azkoitiarrak, Juanma Sancho, Rosa Monzon.

Jesarrita: Verónica Monasterio, Joseba Egillor, azkoitiarra, José Luis Domenech “Petele”, Josune Olabarria, Ana, azkoitiarra, Jabi Basauri, “Konif”, Amagola Aretxabaleta, Agustin Martinez “Tinxu”, Arcadio.